# AZ 0201 20 ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA

# DIMENTSIOEN ETA IRIZPIDEEN EBALUAZIOA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendariaren izena: | | | | | |
| Ikastegia: | | | | | |
| Lurraldea: | | Eremua: | | Maila: | |

**Agiria honek bete du:**

| | |
|---|---|
| Zuzendaria (autoebaluazioa) | |
| Erreferentzia-ikuskaria | |
| Beste ikuskari bat | |

## I.- SARRERA

Zuzendaritza-funtzioa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko, lehenik eta behin, egiaztatu behar da araudiak (otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, eta ekainaren 13ko 3/2008 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzko legea bigarren aldiz aldatzen duena) zuzendariari esleitzen dizkion funtzio guztiak zuzen betetzen direla.

Ebaluazio-tresna bat antolatzeko modu baliagarria da, agiri honetan zehaztutako dimentsioetan, irizpideetan eta adierazleetan bilduta aurkeztea funtzio horiek; indarrean den araudiak zuzendariari esleitzen dizkion guztiak biltzen dituzte horiek.

Zenbait kasutan, aipatutako funtzioek zuzendaritzaren zeregin oso orokorrak biltzen dituzte. Adibidez, "*zuzendaritza pedagogikoaren eskumena*" funtzio orokor gisa soilik uler daiteke, eta beraz hurrengo garapen-mailetan zehaztu behar izan da (aukeratutako ereduan irizpideak eta mailak, eta lotutako adierazleak).

Besteak beste, bost dimentsiotan bildutako funtzio orokorren eta 18 irizpidetan antolatutako funtzio zehatzagoen bidez eraiki da ebaluazio-tresna.

Hala ere, beste kasu batzuetan, araudiak zuzendariari esleitzen zion funtzioaren adierazpen zehatzak horrela eskatzen zuenean, irizpideetan edo lotutako adierazleetan bildu da zehaztasunez.

Ebaluazio-tresnaren eraikitzeko beste zutabe bat, ezin saihestuzko araudiarekin batera, komunitate zientifikoak eta hezkuntza-jarduerak zuzendaritza-funtzioa garatzeko eraginkorragotzat jotzen duten hura da.

Araudian esleitutako funtzio orokorrak abiapuntu hartuta, ahalegindu gara horien antolaketak eta garapenak berme gisa hezkuntza-ikerketaren ondorioak izan ditzaten.

Praktika aldetik esperientzia gehien duten zuzendaritzen bermea ere bilatu da. Horrela, ikastetxe publikoak zuzentzen lan-ibilbide luzea zuten zenbait pertsonekin kontrastatu da ebaluazio-tresna. Pilotatze hori tresnaren lanketa-fasearen amaieran egin da, ebaluatuko diren norabide guztiak hartuko dituzten tipologia desberdineko ikastetxeak aukeratuta.

Beraz, ebaluazio-tresnak eredu izan nahi du; erreferentzia-arauen bidez, hezkuntza-ikerketaren ondorioek bermatutako zuzendaritza-jarduera onenak garapen-mailetan hauteman eta sekuentziatu nahi dituen eredua. EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritzen esku-hartzea hobetzen lagundu nahi du horrela.

Bost dimentsiok biltzen dituzte zuzendaritza-funtzioaren alderdiak:

- ✓ Mugak eta estrategiak zehaztea
- ✓ Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua
- ✓ Lidergo pedagogikoa
- ✓ Barneko eta kanpoko eragileek parte hartzea eta lankidetzan jardutea
- ✓ Aldaketaren kudeaketa eta ebaluazioa sustatzea

Dimentsio bakoitzaren irizpide-sorta aipatzen da agirian; bakoitzari dagokion enuntziatua, zuzendaritzaren egitekoen ariketa-egoeren deskribapena da (lau eraginkortasun-mailatan eta dagozkien adierazleei lotuta).

Irizpide batzuek garrantzi berezia dute, ikastetxearen funtzionamenduan giltzarritzat jotzen direlako eta beraz, zuzendaritza-funtzioa ondo betetzeko oso garrantzitsuak dira.

Hain zuzen ere, irizpideen mailakatzetik datorkio agiri honi gaitasunik handiena; batez ere maila bakoitzaren deskribapenetik, zuzendaritza-funtzioaren jarduera hobetzeko izaera orientatzailea baitauka. Mailakatzea lehenengo mailan hasten da (zuzendaritza-funtzioa eskas gauzatzea), eta balioa eransten zaio 2. eta 3. mailan, 4. mailara iritsi arte (ezin hobeto gauzatzea), horrela:

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
| --- | --- | --- | --- |
| Eskas gauzatzea | → | → | Ezin hobeto gauzatea |

Mailakatze-sistema honen ezaugarri nagusiak azalduko dira ondoren:

1. MAILA: ikastetxearen zuzendaritzak ezarritako ildoari jarraitu ordez, hezkuntza- edo antolakuntza-arloko jarduerak irakasleen edo talderen baten banakako ekimenak diren egoerak azaltzen dira. Beraz, maila honen ezaugarri nagusiak dira zatiketa, ikastetxearen ikuspegi orokorra ez izatea, ebaluatutako alderdiak noizean behin edo ausaz agertzea, batek bestearekin harremanik gabe, eta gertatzen dena pertsona zehatzekin lotzea.

2. MAILA: ikastetxearen proiektuetan ezarritako ildoak eta helburuak zuzendaritzak bultzatutakoak dira maila honetan azaldutako egoeratan, erabakiak hartzeko garaian beti ikasleen ikasketa hobetzea delarik helburu nagusia. Aipatutako alderdiak ikastetxearen egitura osoan finkatuta eta zabalduta ez dauden arren, modu sistematikoagoan eta antolatuagoan agertzen hasten dira, eta batez ere zuzendariaren esku-hartzeagatik gertatzen da. Mailaren goiko aldean, nahikotasun-maila lortuta, zuzendariaren lorpenek dagoeneko zentzu positiboan bideratuak dirudite.

3. MAILA: zuzendaritzak ikastetxe osoan esku hartzen duela begien bistakoa da. Ebaluatutako alderdiak finkatuta eta antolatuta daude, hau da, helburuak edo jarduera-ildoak zehazten dira, abian jartzea planifikatuta dago, gauzatu egiten dira eta lortutako emaitza ebaluatu egiten da. Curriculum- eta antolakuntza-arloan aurrez hartutako erabakien eta emaitzen arteko lotura ere argia da. Mailaren beheko aldean, bigarrenetik gertu, ebaluatutako alderdiak ez daude hain landuta, eta hobetzeko eta aurreratzeko oraindik asko geratzen dela adierazten du; aldiz, mailaren goiko aldean hautagaiak luze eta zabal landu ditu ebaluatutako alderdiak, ia laugarren mailaren hasiera adierazten duen bikaintasunera iristeraino.

4. MAILA: bikaintasun maila da. Ikastetxeak oro har zehaztutako parametroen arabera funtzionatzea lortu du, baita guztia ikaskuntza-kulturan eta etengabeko hobekuntzan finkatuta egotea ere. Zuzendariaren esku-hartzeak eredu bihurtzen dira ikastetxeko gainerako profesionalentzat edo beste ikastetxe eta erakundetakoentzat.

Goiko lorpen-maila bakoitzak behekoen edukia biltzen du.

Maila bakoitzaren edukia “irakurtzean” garrantzitsua da kontuan izatea ikastetxe-mota desberdinak daudela. Beraz, irizpide guztietan eta haien lau mailen deskribapenetan, ebaluatzaile-taldeari dagokio ikastetxe bakoitzaren errealitateari “begirada egokiz behatzea”, bakoitzean zer indartu behar den jakiteko.

Hezkuntza-maila batzuetan zenbait irizpide ezin erabili izatea ere gerta liteke. 13. irizpidea adibidez, “Bermatzea ikasleen hezkuntzari buruzko informazioa ematea familiei, eta sustatzea familia horiek hezkuntza-prozesuan inplikatzea eta erantzunkide izatea”, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH ematen den ikastetxeetarako da, baina ez Helduen Hezkuntza Iraunkorra, Goi Mailako Lanbide Heziketa edo Hizkuntza Eskola Ofizialak ematen diren ikastetxeetarako.

Autoebaluaziorako eta kanpo-ebaluaziorako tresna bezala erabiltzea posible egiten du agiriaren egiturak. Hezkuntza-arloko bi ikuskarik egiten dute kanpo-ebaluazioa, eta horietako bat ikastetxean erreferentziazkoa dena izango da. Ebaluazioa objektiboa izan dadin, zuzendaritzaren jarduera maila batean edo bestean ezarriko duten ebidentziak zehaztu behar dira. Ebidentzia horiek jatorri asko izan ditzakete: besteak beste agirien analisia, zuzendaritzarekin eta ikastetxeko beste organoetako kideekin elkarrizketak, eta ebaluatzaileen beraien behaketa. Dimentsio bakoitzaren amaieran agertzen dira.

Ebaluazioa gainditzeko baldintza hauek bete behar dira:

- ✓ Bost dimentsioak gainditu behar dira.
- ✓ Dimentsio bat gainditzeak dimentsioan “giltzarri” diren irizpide guztiak gainditzea (zuzendaritza-funtzioaren jardueran ezinbestekotzat jotzen direnak, letra lodiz idatzita

daudenak), eta “giltzarri ez diren" irizpideetan (gainerakoetan) bilakaera positiboa izan dela esan nahi du. Arestian aipatu bezala, irizpide “giltzarrietako” baten alderdiren bat zuzendariaren esku-hartze eremutik kanpo egon daiteke ikastetxearen ezaugarriengatik, eta beraz, ez luke ebaluazioan eraginik izango; adibidez, 14. irizpidea “familien parte-hartzea sustatzea (...) ikastetxearen antolakuntza-egituran", pertsona helduei irakasteko ikastetxe bat balitz.

✓ Irizpidea gainditzeko gutxieneko maila 2a da.

Irizpide bakoitzaren edukiaren amaieran ebaluaziorako lauki bana sartu da. Gauza bera dimentsio bakoitzaren amaieran. Bertan lauki bana agertzen da, irizpide bakoitzaren balorazioaren laburpena, dimentsioaren balorazio orokorra eta dagozkien oharrak biltzeko.

## LEHENENGO ZATIA

- DIMENTSIOAK ETA DESKRIPZIOA
- IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK
- LAU MAILEN DESKRIBAPEN OROKORRA



AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

# IRIZPIDE GUZTIENTZAKO LAU MAILEN DESKRIBAPEN OROKORRA*

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ikastetxearen zuzendaritzak ezarritako ildoari jarraitu ordez, hezkuntza- edo antolakuntza-arloko jarduerak irakasleen edo talderen baten banakako ekimenak diren egoerak azaltzen dira. Beraz, maila honen ezaugarri nagusiak dira zatiketa, ikastetxearen ikuspegi orokorra ez izatea, ebaluatutako alderdiak noizean behin edo ausaz agertzea, batek bestearekin harremanik gabe, eta gertatzen dena pertsona zehatzekin lotzea. | Ikastetxearen proiektuetan ezarritako ildoak eta helburuak zuzendaritzak bultzatutakoak dira maila honetan azaldutako egoeratan, erabakiak hartzeko garaian beti ikasleen ikasketa hobetzea delarik helburu nagusia. Aipatutako alderdiak ikastetxearen egitura osoan finkatuta eta zabalduta ez dauden arren, modu sistematikoagoan eta antolatuagoan agertzen hasten dira, eta batez ere zuzendariaren esku-hartzeagatik gertatzen da. Mailaren goiko aldean, nahikotasun-maila lortuta, zuzendariaren lorpenek dagoeneko zentzu positiboan bideratuak dirudite. | Zuzendaritzak ikastetxe osoan esku hartzen duela begien bistakoa da. Ebaluatutako alderdiak finkatuta eta antolatuta daude, hau da, helburuak edo jarduera-ildoak zehazten dira, abian jartzea planifikatuta dago, gauzatu egiten dira eta lortutako emaitza ebaluatu egiten da. Curriculum- eta antolakuntza-arloan aurrez hartutako erabakien eta emaitzen arteko lotura ere argia da. Mailaren beheko aldean, bigarrenetik gertu, ebaluatutako alderdiak ez daude hain landuta, eta hobetzeko eta aurreratzeko oraindik asko geratzen dela adierazten du; aldiz, mailaren goiko aldean hautagaiak luze eta zabal landu ditu ebaluatutako alderdiak, ia laugarren mailaren hasiera adierazten duen bikaintasunera iristeraino. | Bikaintasun maila da. Ikastetxeak oro har zehaztutako parametroen arabera funtzionatzea lortu du, baita guztia ikaskuntza-kulturan eta etengabeko hobekuntzan finkatuta egotea ere. Zuzendariaren esku-hartzeak eredu bihurtzen dira ikastetxeko gainerako profesionalentzat edo beste ikastetxe eta erakundetakoentzat. |

* Lau mailen deskribapen orokorra bakarra da irizpide guztientzat. Hori dela eta hemen agertzen da eta ez dimentsio bakoitzari lotuta.



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

<table>
<tr><th>DIMENTSIOA</th><th>IRIZPIDEAK eta ADIERAZLEAK</th><th>1. M</th><th>2. M</th><th>3. M</th><th>4. M</th></tr>
<tr><td rowspan="14">1. DIMENTSIOA<br><br>Dimentsio honek ikastetxean eragin dezaketen gaitasunekin dauka zerikusia, beti ere, ikastetxea unitate global gisa nahiz elkarrekintzan dauden atalez osatutako erakunde gisa hartuta.<br>Halaber, ondorengo puntuei ere lotuta dago: zuzendariaren esku-hartzeak estrategikoak izatea, funtsean hezkuntza-helburuetan zentratuta egotea eta testuinguruari eta ikastetxean antzemandako premia eta itxaropenei egokitzea. Ondorengo puntuekin ere badu zerikusia: ikastetxearen garatze-aukera berriak bilatzea, hezkuntza-jarduera ordena, segurtasun eta lan eraginkorrezko giro batean egin ahal izateko moduko giro positibo bat sortzea eta elkarbizitza harreman positiboetan oinarritzea.<br>Zuzendariaren lana da partekatutako helburu horiek ikastetxearen bizitza planifikatu eta antolatzeko tresnetan, indarreko legeriak exijitutakoetan, islatzea. Horretarako, zuzendariak partekatutako helburuak eskuratu ahal izateko moduko proiektu koherente eta objektiboetan konkretatuko ditu.<br>Lidergo estrategikoari lotua.</td><td colspan="5">1.- Hezkuntza-erkidegoko kide desberdinen premiak eta itxaropenak eta ikastetxearen testuingurua aztertzea.</td></tr>
<tr><td>1.1.- Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak eta ikastetxearen inguruaren ezaugarriak analizatzeko baliabideak sustatzea eta erabiltzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="5">2.- Zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxearen proiektuen bidez (IHP, ICP, urteko plan eta memoriak, AJA eta ikastetxea antolatzeko beste tresna batzuk) ildo estrategikoak definitu eta sustatzea, antzemandako premiei eta itxaropenei erantzuna emateko.</td></tr>
<tr><td>2.1.- Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak eta ikastetxearen ezaugarriak erabiltzea ikastetxearen lerro estrategikoak zehazteko eta proiektuak sustatzeko.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2.2.- Ikastetxe osoari buruzko eta hark bere zatiekin duen erlazioari buruzko (ikasgelak, zikloak, sailak, koordinazio-organoak, etab.) ikuspegi globala ematea</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2.3.- Ikastetxearen lanari jomugak proposatzea, batez ere ikasleen hezkuntza-garapenera eta beraien emaitzak hobetzera bideratuta daudenak</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2.4.- Urteko plana eta memoria zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxearen proiektuen lerro estrategikoekin bat etorriz egiten direla eta zuzendaritza-proiektua urteko planean islatzen dela ziurtatzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="5">3.- Testuingurua kontuan hartuz, hezkuntza-erantzuna berrikusi eta egokitzea eta ikastetxea garatzeko aukerak bilatzea.</td></tr>
<tr><td>3.1.- Baliabideak jartzea ikastetxearen planak eta proiektuak hezkuntza-jarduerara egokitzeko.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>3.2.- Hobekuntzarako esparruak bilatzea hezkuntzaren arloko esku-hartzea eskola-arrakastarantz bideratzeko.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="5">4.- Eskolan elkarbizitza-giro bat lortzeko mekanismoak finkatzea.</td></tr>
<tr><td>4.1.- Harreman positiboak (begirunea, konfiantza, laguntza etab.) oinarri dituen bizikidetza bultzatzea. Hezkuntza-arloko eragile guztiek egiten dute beren ekarpena bizikidetza-behatokian edota -batzordean parte hartuz, eta bizikidetza planean jasotzen da. Bizikidetza kudeatzearen motor nagusia irakasleak izatea sustatzen du zuzendaritzak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>4.2.- Araudia garatzea elkarbizitza erregulatzeko modu</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>


Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | *bezala, gatazkei modu eraikitzailean heltzeko eta gatazkei irtenbidea ematerakoan bitartekaritza, adiskidetzea eta konponketa lortzeko* | | | | |
| | *4.3.- Ikasleei neurri zuzentzaileak ezartzea eta horiek sustatzea, indarrean den araudiaren arabera, izan beharreko izaera hezitzailea nabarmenduz beti ere.* | | | | |
| | 5.- Aldez aurretik adostutako proiektuen arabera ikastetxea zuzentzea. | | | | |
| | *5.1.- Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea. Ekitaldi akademikoak eta eskola-kontseiluaren eta irakasle-klaustroaren saioak deitzea eta beraietako buru izatea.* | | | | |
| | *5.2.- Indarrean den araudia eta bere eskumenen esparruan lortutako akordioak betetzea eta betetzen direla ziurtatzea, eta aurrez adostutako proiektuekin era koherentean zuzentzea ikastetxea.* | | | | |
| | *5.3.- Sistematikoki zabaltzea eta jakinaraztea eskolaren jomugak eta lortutako emaitzak, batez ere ikasleekiko hezkuntza-arloko erantzunean.* | | | | |

**OHARRAK**



AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

| DIMENTSIOA | IRIZPIDEAK eta ADIERAZLEAK | 1. M | 2. M | 3. M | 4. M |
|---|---|---|---|---|---|
| **2. DIMENTSIOA**<br><br>Ondorengo jarduerak egiteko zuzendariaren gaitasunei lotzen zaie dimentsio hau: irakasleek ikastetxean egin beharreko lan koordinatua sustatzea; zuzendaritza-taldea bera koordinatzea eta haren lidergoa bultzatzea; antolaketan ardurak banatzea eta markatutako helburuak lortzeko antolaketa-egiturak garatzea.<br>Halaber, ondorengo puntuak gauzatzeko zuzendaritzaren gaitasunari ere lotzen zaio: erabakiak hartzeko prozesuan inplikazio handiagoa sustatzea, irakasleak motibatu eta sustatzea, hezkuntza-lanarekin konprometitzea lortzea eta bakoitzari ematen zaizkion funtzioak hark dituen garatze-ahalmenei egokitzea. Lidergo zabaldu edo banatuari lotua.<br>Gainera, irakasleekin harremanak izateko nahiz irakasleen eta zuzendaritzaren garapen profesionala sustatzeko, zuzendariak izan beharreko gaitasunak sartzen ditu dimentsio honek eta, horregatik, gaitasun pertsonal eta pertsonen artekoak hartzen ditu. Aurreko guztia zuzendariaren beraren eta irakasleen praktika profesionala hobetzeari lotuta dago.<br>Azkenik, zuzendaritza-eskuduntzen esparruan dauden baliabide ekonomiko, pertsonal eta materialen kudeaketa eta administrazioa sartzen ditu dimentsio honek.. | 6.- Talde-lana sustatzea irakasleen artean. | | | | |
| | *6.1.- Ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko talde-lana indartzea, koordinazio-organoen bidez beharrezko diren antolakuntza-egiturak sustatuz.* | | | | |
| | *6.2.- Eraginkortasuna ikastetxeko koordinazio- eta gobernu-organoen jardueran.* | | | | |
| | **7.- Zuzendaritza-taldearen lidergoa sustatzea, ardurak eskola-antolaketa guztian banatzea eta irakasleen inplikazioari eta konpromisoari laguntzea.** | | | | |
| | *7.1.- Ikastetxeko jarduera guztien lidergoa eta koordinazioa, irakasleen klaustroari eta eskola-kontseiluari dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Zuzendaritza-taldeko gainerako kideak proposatzen ditu, klaustroa eta OOGa jakinaren gainean jarrita.* | | | | |
| | *7.2.- Irakasleek ikastetxeko jarduera guztietan parte hartu dezaten bultzatzea, funtzioak eta ardurak esleituz, banakoen eta taldeen ahaleginak eta arrakastak onartuz eta aintzat hartuz, eta beraien proposamenak eta ekarpenak koordinazio- eta gobernu-organoetan kontuan hartuz.* | | | | |
| | *7.3.- Informazioa elkartrukatzeko komunikazio-bideak etengabe irekita izatea, parte-hartzea bultzatzeko eta erabakiak hartzerakoan adostasunera iristeko* | | | | |
| | 8.- Prestakuntza jasotzea, lana hobetzeko eta lidergoan oinarritutako dohain eta portaera positiboak erakusteko; irakasleen parte-hartzea sustatzea prestakuntzan eta berriztapenean. | | | | |
| | *8.1.- Lidergo-gaitasunaren portaerak eta bertuteak eta prestakuntzarako interesa agertzea, araudiaren eta ikastetxeko funtzionamenduaren gai garrantzitsuenak ezagutuz, eta hezkuntza-komunitateko eta inguruko erakundeetako hainbat sektoreren beharrak ulertzeko, erantzuteko eta asetzeko ekimenak hartuz.* | | | | |
| | *8.2.- Ikastetxeko lerro estrategikoekin bat etorriz irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko prestakuntza eta berrikuntza laguntzea eta sustatzea, banaka nahiz kolektiboki, baliabide eta laguntza egokiak eskainiz.* | | | | |
| | **9.- Ikastetxearen baliabideak eraginkortasunez kudeatu eta administratzea.** | | | | |
| | *9.1.- Ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko, giza baliabideak antolatzea ikastetxearen hezkuntza-eskaintzarekin eta planifikazioarekin bat etorriz; adostutako,* | | | | |



Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | *zehaztutako eta etengabe berrikusitako helburuetan oinarrituta.* | | | | |
| | *9.2.- Ikastetxearen aurrekontua egitea koordinatzea. Baliabide ekonomikoak eta finantzarioak (kontratazioak, gastuak eta ordainketak…) modu eraginkorrean kudeatzea, aurrekontua egiteko eta abian jartzea kontrolatzeko adierazle egokiekin, ikastetxea kudeatzeko urteko programarekin bat.* | | | | |
| | *9.3.- Ikastetxearen estrategiaren eta planifikazioaren arabera planifikatzea eta kontrolatzea informazioa sartzeko eta irteteko sistema, eta instalazioen, materialen eta baliabide teknologikoen erabilera. Dokumentazioaren kudeaketa egokia ziurtatzen duten mekanismoak ezartzea.* | | | | |

**OHARRAK**



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

| DIMENTSIOA | IRIZPIDEAK eta ADIERAZLEAK | 1. M | 2. M | 3. M | 4. M |
|---|---|---|---|---|---|
| **3. DIMENTSIOA**<br><br>Zuzendariak du zuzendaritza pedagogikoaren eskuduntza, haren kudeaketaren ardurak Ikasketa Burutzarenak ere diren arren. Lidergo pedagogikoa lotuta dago irakasleen irakaskuntza hobetzen duten neurriak sustatzeari, esate baterako, adostutako erabaki metodologikoak, arlo eta irakasgai desberdinen planteamendu didaktikoak, erabilitako baliabideak eta ikasleen ebaluazioa bezalako neurriak, eta halako moduan non aniztasunari eman beharreko arreta, desberdintasunen konpentsazioa, egiazko ikaskuntza eta gaitasunak eskuratzea, errendimenduaren areagotzea eta ikasle bakoitzaren eskola-arrakasta bermatzen diren.<br>Halaber, puntu hauei ere lotuta dago: tutoretza egin ahal izateko bitartekoak edukitzea, ikasleen hezkuntza-aurrerapenaren orientabidea eta gida, seme-alaben hezkuntzari buruzko informazioa familiei helaraztea eta hezkuntza horretan haien inplikazioa lortzea.<br>Lidergo pedagogikoari edo ikaskuntzarako lidergoari lotuta dago. | **10.- Irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzeko behar diren curriculum-neurriak sustatzea.** | | | | |
| | *10.1.- Programazio didaktikoak eta ikasgeletakoak ikastetxeko proiektuekin koherentzian egiten eta berrikusten direla ziurtatzea. Ikasleei eta familiei ezagutarazteko prozedurak ziurtatzea.* | | | | |
| | *10.2.- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen hobekuntza eta ikasleen ebaluatzea bultzatzeko neurri curricularren aldaketa sustatzea, horrela ikasleen errendimendua hobetzeko.* | | | | |
| | *10.3.- Ikasketarako denbora luzatzea eta optimizatzea (eskolak ordurako hastea, ikasgelan denbora modu eraginkorrean erabiltzea, beste denbora eta leku batzuk erabiltzea…)* | | | | |
| | **11.- Aniztasunari arreta emateko neurriak sustatzea.** | | | | |
| | *11.1.- Ikasleria osoaren aniztasunerako arreta ziurtatzeko prozedurak bultzatzea, ikasle bakoitzari (zailtasun- nahiz bikaintasun-egoeran izan arren) eman beharreko hezkuntza-arloko erantzunarekin batera.* | | | | |
| | *11.2.- Hezkuntza-arloko erantzun dibertsifikatuak zehaztea, ikasleen beharretara egokituta, arreta berezia eskainiz berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei (ahalmen urritasuna, hezkuntza-sisteman berandu sartzea, adimen-gaitasun handiak, baldintza pertsonalak edo eskolako historiarenak, edo desberdintasun sozialak).* | | | | |
| | *11.3.- Eskola inklusiboaren printzipioen arabera indartzea laguntzen eta baliabideen antolakuntza eta kudeaketa: agerpena, parte-hartzea eta lorpena, eguneroko testuinguruan* | | | | |
| | **12.- Irakasleek ikasleen tutoretza eta orientabidea gauzatu ditzaten bitartekoak edukitzea.** | | | | |
| | *12.1.- Banaka nahiz taldeka tutoretza-funtzioa betetzen dela ziurtatzea.* | | | | |
| | *12.2.- Ikasleak akademikoki, profesionalki nahiz pertsonalki orientatzeko bitartekoak jartzea.* | | | | |
| | *12.3.- Tutoreak eta beste eragile batzuk familiekin komunikatzen direla ziurtatzea.* | | | | |
| | 13.- Ikasleen hezkuntzari buruz familiei informazioa segurtatzea eta hezkuntza horretan haien inplikazioa sustatzea. | | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | *13.1.- Ikasleen hezkuntza-garapenaren alderdiei buruzko informaziorik garrantzitsuena beraien familiei iristen zaiela ziurtatzea.* | | | | |
| | *13.2.- Ikasleen hezkuntza-prozesuan familien inplikazioa sustatzea ikastetxekoarekin batera.* | | | | |

**OHARRAK**



AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

<table>
<tr><th>DIMENTSIOA</th><th>IRIZPIDEAK eta ADIERAZLEAK</th><th>1. M</th><th>2. M</th><th>3. M</th><th>4. M</th></tr>
<tr><td rowspan="12">4. DIMENTSIOA<br><br>Ikasleen, familien eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren inplikazioa eta konpromisoa lortzera bideratutako dimentsioa, horiek guztiak baitira, irakasleekin batera, hezkuntza-erkidegoko eragileak.<br>Halaber, elkarrizketa, arreta eta hezkuntza-erkidegoko kide guztien arteko elkarbizitzarako lagungarri izango diren jarduerak sustatzearekin ere lotuta dago.<br>Zuzendariak, haren erkidegoan Hezkuntza Administrazioko ordezkaria den aldetik eta Administrazioan hezkuntza-erkidegoko ordezkaria den aldetik, duen esku-hartzeari lotuta dago.<br>Halaber, ikastetxea kanpora begira irekitzeari ere lotuta dago eta ikastetxetik kanpoko beste erakunde, instituzio eta pertsona batzuekin lankidetzan jarduteko sareak sortu edo bultzatzea ere sartzen du.</td><td colspan="5">14.- Ikasleen, familien eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren inplikazioari eta konpromisoari laguntzea ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan.</td></tr>
<tr><td>14.1.- Ikasleak ikasgelaren eta ikastetxearen antolakuntzan eta funtzionamenduan parte hartu dezaten eta inplikatu daitezen sustatzea, bizikidetza positiborako neurriei bide emanez.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>14.2.- Familiak eta irakasle ez diren langileak ikastetxearen antolakuntza-egituran parte hartu dezaten eta inplika daitezen sustatzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="5">15.- Inguruneko beste ikastetxe, instituzio, zerbitzu, enpresa eta pertsona batzuekiko lankidetza sustatzea.</td></tr>
<tr><td>15.1.- Beste ikastetxe batzuekin harremanak sendotzea esperientziak eta hezkuntza-jardunbide onak elkartrukatzea errazteko, eta ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatzea hezkuntza-arloko esku-hartzeak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>15.2.- Inguruko instituzioetako eta erakundeetako informazio garrantzitsua ematen duten prozedurak sortzea eta proiektuak hobetzeko sistematikoki erabiltzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>15.3.- Ikastetxeaz kanpoko beste erakunde batzuen parte-hartzea sustatuko duten mekanismoak abian jartzea ikasleekiko esku-hartzea hobetzeko...</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="5">16.- Administrazioaren ordezkari izatea hezkuntza-komunitatearen aurrean; eta hezkuntza-komunitatearen ordezkari Administrazioaren aurrean</td></tr>
<tr><td>16.1.- Ikastetxearen ordezkari izatea kanpoan, bai hezkuntza-administrazioaren aurrean, bai beste ikastetxeen, erakundeen, instituzioen eta enpresen aurrean.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>16.2.- Ikastetxean Administrazioaren ordezkari izatea, ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen ikuspuntuak, nahiak eta beharrak eta ikastetxean izandako gertakari garrantzitsuenak iritsaraziz horri.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="6">OHARRAK</td></tr>
</table>



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

| DIMENTSIOA | IRIZPIDEAK eta ADIERAZLEAK | 1. M | 2. M | 3. M | 4. M |
|---|---|---|---|---|---|
| **5. DIMENTSIOA**<br><br>Dimentsio hau etengabeko hobekuntzari ere lotzen zaio eta Diagnostikoa – Planifikazioa - Praktikan jartzea - Ebaluazioa zikloari lotutako alderdiak hartzen ditu. Hobekuntza, kanpo eta barneko ebaluazio-prozesuetatik abiatuz, era sistematikoan antolatzea zuzendariak bultzatu behar du.<br>Ikastetxe baten kudeaketa integratuak eta kalitatekoak ziklo hori lehen aipatutako dimentsio bakoitzean osatu beharko lukete. | 17.- Ikastetxearen programei, antolaketari eta funtzionamenduari buruzko barne-ebaluazioak sustatzea eta kanpo-ebaluazioekin lankidetzan jardutea. | | | | |
| | *17.1.- Barne-ebaluazioa sustatzea eta kanpo-ebaluazioak egiten laguntzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko datuak eta frogak izateko; baita ikastetxearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoak ere* | | | | |
| | *17.2.- Ikastetxearen kudeaketa hobetuko duten proiektu globaletan (SGC, EFQM eta beste batzuk) sartzea ikastetxea bera.* | | | | |
| | **18.- Kanpo- eta barne-ebaluazioaren emaitzak curriculum- eta antolaketa-esparruetan hobekuntza-mekanismo gisa erabiltzea, ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna optimizatzeko.** | | | | |
| | *18.1.- Ebaluazioetako emaitzen erabilera sustatzea eta sistematizatzea irakasleen irakaskuntza-prozesuak, ikasleen ikaskuntza-prozesuak eta ikastetxearen antolakuntza-prozesuak hobetzeko eta berrorientatzeko.* | | | | |

**OHARRAK**



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## BIGARREN ZATIA

- IRIZPIDE BAKOITZERAKO LAU MAILEN DESKRIBAPEN ZEHATZA, ADIERAZLEAK KONTUAN EDUKIZ GERO
- EBIDENTZIA-ITURRIAK



AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## 1. DIMENTSIOA: HELBURUEN ETA ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN DEFINIZIOA

**1. irizpidea** Hezkuntza-erkidegoko kide desberdinen premiak eta itxaropenak eta ikastetxearen testuingurua aztertzea

**Adierazlea** Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak eta ikastetxearen inguruaren ezaugarriak analizatzeko baliabideak sustatzea eta erabiltzea.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Irakasle batzuk beraien geletako ikasleen edo familien beharrak eta itxaropenak jaso eta aztertzen dituzte, zuzendaritzak ikastetxe osorako bultzatutako ekimen bati lotu gabe.<br><br>Noizbehinkako edo loturarik gabeko esku-hartzeak egon daitezke, baina horiek ez dira inoiz izaten aurrez finkatutako helburu bati erantzuna emateko elkarrekin zehaztutako jarduerak.<br><br>Era berean, irakasle batzuek testuinguruaren ezaugarriak indibidualki erabiltzen dituzte hezkuntzaren arloko esku-hartzea hobetzeko, baina ez ikastetxearen helburu bezala. | Hezkuntza-komunitateko eragileren baten (ikasleak, irakasleak…) beharrak eta itxaropenak jasotzea eta aztertzea sustatzen du zuzendaritzak. Eragileak batez ere barrukoak dira.<br><br>Beharren eta itxaropenen azterketa ikastetxearen alderdi partzialei buruz egiten den arren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuekin erlazionatutako batzuk ere ageri dira.<br>Datuen bilketa- eta azterketa-maila oinarrizkoa da.<br><br>Ikasleen eta familien ezaugarrien balorazioaren bidez (gizarte- eta hezkuntza-mailakoak, kulturalak, ekonomikoak, eta abar) ikastetxearen testuinguruaren azterketari bide ematen zaio. | Zuzendaritzak erabaki irmoarekin bultzatzen du hezkuntza-komunitateko eragileen (barrukoen nahiz kanpokoen) beharrak eta itxaropenak jasotzea eta aztertzea; besteak beste, bilera, inkesta eta balorazio-foroen bidez.<br><br>Eskolako emaitzak hobetzea lortzeko, besteak beste irakasleen antolaketarekin eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuekin erlazionatutako alderdiei buruz jasotzen dira beharrak eta itxaropenak.<br><br>Eragileen beharrak eta itxaropenak koordinazio-organoen bidez jasotzeko eta aztertzeko antolaketan eta egituraketan ibilbide luzea dago.<br><br>Ikasleen eta familien ezaugarriak berrikusten dira hezkuntza-arloko erantzuna egokitzeko. Kontuan hartzen dira ikastetxearekin lankidetzan aritzen diren beste erakundeak edo beste eragileak (udalak, beste ikastetxeak, enpresak, pertsonak, taldeak, etab.), ikasleen hezkuntza-arloko erantzuna hobetzeko. | Zuzendaritzak protokolo bihurtu du, zenbait metodoren eta iturriren bidez, hezkuntza-arloko eragileen beharrak eta itxaropenak jasotzea eta aztertzea.<br><br>Zuzendaritza da bilketa eta azterketa horren burua; komunitateko eragile guztiak partaide egiten ditu, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei eta irakasleen antolakuntzari lehentasuna ematen die eskolako emaitzak hobetzea lortzeko.<br><br>Lehenetsi egiten da zein erakunderekin edo inguruko zein eragilerekin aritu lankidetzan ikasleen hezkuntza-arloko erantzuna bultzatzeko.<br><br>Zuzendaritza da, hobetzeko, ezarritako protokoloa berrikustea zuzentzen duena. Jardunbide egokiak pPartekatu eta ikasi egiten ditu. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. HEZKUNTZA-ERKIDEGOKO ERAGILEEN PREMIAK ETA ITXAROPENAK (ELKARRIZKETAK, BEHAKETA, AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Premiak eta aukerak jasotzeko ezarritako prozedurak:
  - ✓ Iradokizunen postontzia
  - ✓ Inkestak
  - ✓ Iritzia emateko foroak, foku-taldeak…
  - ✓ Hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinekin saio espezifikoak (eskolaren ametsa, proiektu estrategikoa, hezkuntza-proiektua…).
  - ✓ Merkatuaren ikerketa (ikastetxearen irudia, ingurunean duen eragina…).
  - ✓ …

2ª. PREMIAK ETA ITXAROPENAK JASOTZEN DIREN GAIAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA)

- Galderak egiteko gaiak:
  - ✓ Ikastetxearen antolaketa (egutegia, ordutegia, funtzionatzeko arauak…).
  - ✓ Irakatsi eta ikasteko prozesuak (metodologia, baliabide didaktikoak, irakasleak, ebaluazioa…)
  - ✓ Instalazio eta zerbitzuak (instalazioen egokitzapena, jantokia, garraioa, ordutegia zabaltzea, espazioen erabilpena…)
  - ✓ Baliabideak (teknologia berrien erabilpena sustatzea): on-line plataforma, web orria…
  - ✓ Hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzea.
  - ✓ …

3ª. KONTSULTATUTAKO KOLEKTIBOAK (ELKARRIZKETAK)

- Ondorengo iritzien jaso dira:
  - ✓ Familiak
  - ✓ Ikasleak
  - ✓ Irakasleak eta pertsonal ez irakaslea
  - ✓ Enpresak
  - ✓ Udal ordezkariak
  - ✓ Beste instituzio batzuk
  - ✓ …

4ª. ANALISIA EGIN ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUA (AGIRIEN BERRIKUSPENA, ELKARRIZKETAK)

- Analisia egin eta erabakiak hartzeko ezarritako prozedurak.
  - ✓ Protokoloak diseinatzea (jaso beharreko informazioa identifikatzea, kontsultatu beharreko kolektiboak, metodologia, denboralizatzea eta berrikuspena).
  - ✓ Lortutako informazioa aztertu eta lehentasuna emateko taldeak osatzea.
  - ✓ Teknika desberdinen erabilpena:DAFO, talde nominalak, NAFER…
  - ✓ Erabakiak hartzeko deribazioa.
  - ✓ …

5ª. PRAKTIKA ONAK (ELKARRIZKETA, AGIRIEN BERRIKUSPENA)

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxe edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioak jasotzen ditu.
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…
  - ✓ …



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

**2. irizpidea** **Zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxearen proiektuen bidez (IHP, ICP, urteko plan eta memoriak, AJA eta ikastetxea antolatzeko beste tresna batzuk) ildo estrategikoak definitu eta sustatzea, antzemandako premiei eta itxaropenei erantzuna emateko**

**Adierazleak**

- Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak eta ikastetxearen ezaugarriak erabiltzea ikastetxearen lerro estrategikoak zehazteko eta proiektuak sustatzeko.
- Ikastetxe osoari buruzko eta hark bere zatiekin duen erlazioari buruzko (ikasgelak, zikloak, sailak, koordinazio-organoak, etab.) ikuspegi globala ematea.
- Ikastetxearen lanari jomugak proposatzea, batez ere ikasleen hezkuntza-garapenera eta beraien emaitzak hobetzera bideratuta daudenak
- Urteko plana eta memoria zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxearen proiektuen lerro estrategikoekin bat etorriz egiten direla eta zuzendaritza-proiektua urteko planean islatzen dela ziurtatzea.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeak ez dauka lerro estrategikorik edo ikastetxe-proiekturik (IHP, ICP, AJA), eta baldin badauka ere forma hutsa dira; hezkuntza-komunitateko eragileen beharretatik eta itxaropenetatik bananduta daude.<br><br>Ikastetxearen urteko proiektuaren (IUP) edukia forma hutsa da, eta memoriarengandik, zuzendaritza-proiektuarengandik eta ikastetxearen beste proiektuengandik bereizita dago.<br><br>Alderdi partzialen gaineko ekintzak egiten dira soilik, eta ez ikastetxea helburu eta jomuga globalak dituen unitatea bezala.<br>Zuzendaritzaren esku-hartzea hainbat gorabeheraren eta larrialdiren mende dago, eta zuzendariak horiekin ematen du bere jardueraren denbora gehiena.<br><br>Ikasleekiko hezkuntza-arloko arreta zatika edo laburki zehazten da zuzendaritza-proiektuan eta/edo IUPn. | Zuzendaritzak ikastetxe-proiektuen (IHP, ICP, AJA) lerro estrategikoren bat edo lerro nagusiren bat zehazten eta/edo sustatzen du, batez ere irakasleen itxaropenen eta beharren arabera.<br><br>Memoriaren ondorioak hurrengo ikasturteko IUP egiteko erabiltzen dira. IUPk zuzendaritza-proiektuaren edo ikastetxearen proiektuen helburuetako bat dauka.<br><br>Zuzendaritzak, zehaztutako lerroei jarraituz, ikastetxearen zenbait esparru globaletan esku hartzen du, hala nola, curriculumari (metodologia, ebaluazioa…) eta antolakuntzari dagozkionak (baliabideak esleitzea, irakasleen antolakuntza…); besteak beste zikloetan eta sailetan lantzeko.<br><br>Aurreko esku-hartze globalak garatzeko behar den denbora planifikatzen du zuzendaritzak.<br><br>Lerro estrategikoek edo ikastetxe-proiektuek eragina dute hezkuntza-arloko erantzuna hobetzeko ikaslearekiko hezkuntza-arretan. | Hezkuntza-komunitateko eragile gehienen itxaropenen eta beharren bidez lerro estrategikoak eta/edo ikastetxe-proiektuak (IHP, ICP, AJA) zehazten eta/edo sustatzen ditu zuzendaritzak.<br><br>IUP guztiz bat dator memoriaren ondorioekin eta zuzendaritza-proiektuaren helburuak sistematikoki agertzen dira.<br><br>Zuzendaritzaren esku-hartze gehienek ikastetxe osoa hartzen duten esparruetan dute eragina. Esparru horietakoren batean esku hartzen denean, ikastetxe osoarengan dituen ondorioak hartzen dira kontuan, bere eragina balioesteko.<br><br>Denbora planifikatzea zuzendaritzako beste kideei ere badagokie, baita ikastetxeko beste antolakuntza-egiturei ere.<br><br>Lerro estrategiko berria edo ikastetxe-proiekturen bat zehazten denean, oinarrizko ildoa ikasleen emaitzak hobetzea da. | Lerro estrategikoak edo ikastetxe-proiektuak (IHP, ICP, AJA) dira ikastetxe osoko hezkuntza-arloko jardueraren ildo nagusia. Zuzendaritzak zehaztu edo sustatu ditu hezkuntza-komunitate osoko eragileen itxaropenen eta beharren bitartez, ikastetxetik kanpoko eragile garrantzitsuenak ere kontuan hartuz.<br><br>IUPren balorazioaren ostean erabakiak hartzen dira, lerro estrategikoak edo ikastetxe-proiektuak aldatzeko eta egokitzeko.<br><br>Ikastetxean esku-hartze globalaren emaitzak ikusten dira, ikasgelako eta ikastetxeko antolakuntza-egituretako jardunbide egokietan.<br><br>Egindako planifikazioaren eraginkortasuna balioesten da, eta behar izanez gero aldatu.<br><br>Zuzendaritzak jarduera proaktiboak sortzen ditu ager daitezkeen beharrei aurrea hartzeko; horrela, etengabeko hobekuntza-prozesuan sartzen da erakundea. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

## EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. ILDO ESTRATEGIKOEN DEFINIZIOA (AGIRIEN BERRIKUSPENA)

- Ildo estrategikoak dagoeneko lehentasuna eman zaien premia eta itxaropenekin bat etortzea:
  - ✓ IHPn
  - ✓ ICP
  - ✓ Plan estrategikoa
  - ✓ Zuzendaritza-proiektua
  - ✓ Urteko plana- urteko memoria (arreta berezia emango zaie, bia giri hauek dakarten funtzio operatiboarengatik)
  - ✓ …

2ª ZUZENDARITZAK JARDUTEKO ESPARRUAK, ILDO ESTRATEGIKOETATIK ABIATUZ (AGIRIEN BERRIKUSPENA ETA ELKARRIZKETAK).

- Ildo estrategikoek zuzendaritzaren lanean eragina izatea bilatuko da, eskola-emaitzen hobekuntza azaltzen duten ildo estrategikoek batez ere:
  - ✓ Gobernu-organoen bileren aktak.
  - ✓ Koordinazio didaktikoko organoen bileren aktak (koordinazio pedagogikoko batzordea, departamentuak, zikloak…).
  - ✓ Zuzendaritzak zein alderditan esku hartu behar duen eta esku-hartze horiei zein dedikazio eman behar dien konkretatzeko elkarrizketak: zuzendaritza-taldearekin, ziklo koordinatzaileekin edota mintegi burutzekin.


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

**3. irizpidea** Testuingurua kontuan hartuz, hezkuntza-erantzuna berrikusi eta egokitzea eta ikastetxea garatzeko aukerak bilatzea.

**Adierazleak**

- Baliabideak jartzea ikastetxearen planak eta proiektuak hezkuntza-jarduerara egokitzeko.
- Hobekuntzarako esparruak bilatzea hezkuntzaren arloko esku-hartzea eskola-arrakastarantz bideratzeko.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Dagokion irakaslearen edo irakasle-taldearen esku uzten da ikasle eta ikasle-talde bakoitzari eman beharreko hezkuntza-arloko erantzuna berrikustea eta egokitzea; beraz, zuzendaritzaren irizpide honen gaineko helbururik ez dauka edo oso lausoak dira.<br><br>Hobekuntzak irakasleen banakako ekimenekin lotzen dira, baina ez dute zuzendaritzak zehaztutako ildorik jarraitzen.<br><br>Ikasleari eman beharreko hezkuntza-arloko erantzuna hobetzeko aukeren bilaketa ez da zehazten. | Hezkuntza-arloko erantzuna egokitzeko zuzendaritzak ikastetxe osoa hartzen duen esparrua ezarri du, emaitza-akademikoetan, kanpo-ebaluazioetako datuen azterketan eta itxaropenetan eta beharretan oinarrituta. Azterketa horretarako irakasleen, familien eta ikasleen parte-hartzea errazten du.<br><br>Irakasleen antolakuntza hobetu nahi da ikasleekiko arreta hobetzeko (koordinazioa, curriculuma, materialak egitea…).<br><br>Ikastetxearen zenbait alderdi garatzeko eta hobetzeko aukeren bilaketa bideratzen du zuzendaritzak. | Zuzendaritzak barne-ebaluazioen emaitzen analisiak gehitzen dizkio ezarritako esparru komunari. Irakasleen, familien, ikasleen eta ikastetxearentzat esanguratsuak diren beste eragile batzuen parte-hartzea ziurtatzen du.<br><br>Eskola-emaitzak hobetzen dituzten hezkuntza-arloko erantzunaren alderdi nagusiak zehazten ditu zuzendaritzak.<br><br>Antzemandako aukerak garatu ahal izateko jarduera zehatzak azaltzen dira IUPn. | Datu-iturri asko erabiltzen dira, guztiak sistematizatuta, antolatuta eta ikasleari eman beharreko erantzuna berrikusteko lehenetsita. Badira koordinazio-egitura egonkorrak, aldian-aldian berrikusketaz eta egokitzeaz arduratzen direnak.<br><br>Zehaztutako alderdi nagusiak hezkuntza-arloko ikerketarekin eta jardunbide egokiekin kontrastatzen dira.<br><br>Ikastetxearen garapen-aukerek lerro estrategiko edo ikastetxe-proiektu berriak ematen dituzte. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. HEZKUNTZA-ERANTZUNA EGOKITZEKO ESPARRUA (AGIRIEN AZTERKETA).

- Datu-iturri desberdinak erabili diren egiaztatzea:
  - ✓ Eskola-emaitzak
  - ✓ Ebaluazio diagnostikoa
  - ✓ Barne edota kanpoko beste ebaluazio batzuk
  - ✓ Absentismoari, berdinen arteko tratu txarrei, itxaropena eta premiei buruzko datuak…

- Jasotako informazioa berrikusi eta egokitzeko koordinazio-egiturak egotea:
  - ✓ Egitura horiek identifikatzea.
  - ✓ Agirien berrikuspena: IUP, ICP, AJA, zuzendaritza-proiektua, urteko plana…

2ª. GARATZEKO AUKERAK (AGIRIEN AZTERKETA)

- Datu desberdinak analizatu izanaren ondorioz, hobetzeko esparruak identifikatzen dira:
  - ✓ Agirien berrikuspena, aldez aurretik definitutako ildo estrategikoen aldaketak egiaztatzeko (IHP, plan estrategikoa, urteko plana…).
  - ✓

3ª. PRAKTIKA ONAK (AGIRIEN AZTERKETA ETA ZUZENDARITZAREKIN ELKARRIZKETA)

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxe edo erakundeak bisitatzen ditu
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa hartzen du…
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…

**4. irizpidea** **Eskolan elkarbizitza-giro bat lortzeko mekanismoak finkatzea..**

**Adierazleak**

- Harreman positiboak (begirunea, konfiantza, laguntza etab.) oinarri dituen bizikidetza bultzatzea. Hezkuntza-arloko eragile guztiek egiten dute beren ekarpena bizikidetza-behatokian edota -batzordean parte hartuz, eta bizikidetza planean jasotzen da. Bizikidetza kudeatzearen motor nagusia irakasleak izatea sustatzen du zuzendaritzak.
- Araudia garatzea elkarbizitza erregulatzeko modu bezala, gatazkei modu eraikitzailean heltzeko eta gatazkei irtenbidea ematerakoan bitartekaritza, adiskidetzea eta konponketa lortzeko.
- Ikasleei neurri zuzentzaileak ezartzea eta horiek sustatzea, indarrean den araudiaren arabera, izan beharreko izaera hezitzailea nabarmenduz beti ere.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Oinarrian irakasleen, ikasleen eta gainerako eragileen banakako esku-hartzeen ondorio da ikastetxeko bizikidetza, eta ez dago, edo oso berriak dira, giro eta bizikidetza positiboak nahi dituen ikastetxe osorako helbururik. Bizikidetza-plana itxura hutsa besterik ez da bere kudeaketan eta garapenean.<br><br>Lege-xedapenetako eskakizunak kontuan hartzen diren arren, ez dago batera zehaztutako prozedurarik ikastetxearen eta ikasgelen barne-araudia erregulatzeko, gatazkak aurreikusteko eta horiei modu eraikitzailean heltzeko, ezta bitartekaritzarako, adiskidetzerako eta konponketarako ere.<br><br>Ez da osatu bizikidetza-behatokia edota -batzordea, edo osatu bada itxura hutsa da bere egitekoa.<br><br>Neurri zuzentzaileak indarrean diren lege-xedapenen arabera aplikatzen dira, beti izan behar duten izaera hezitzailearen garrantziari buruzko talde-hausnarketarik gabe ordea. | Zuzendaritzak bizikidetza-plana egitea bultzatu du. Irakasleen lankidetzarekin eta parte-hartzearekin egin du.<br>Bizikidetzaren hasierako diagnostiko baten bidez egin da plan hori. Bizikidetza positiboaren helburuak zehazten ditu.<br><br>Bizikidetza-batzordea edota –behatokia osatuta dago. Zuzendaritza da burua eta irakasleek parte hartzen dute. Familien eta ikasleen parte-hartzea txikia da oraindik.<br><br>Irakasleen eta zuzendaritzaren beraren ardura nork bere gain hartzea sustatzen du zuzendaritzak, bizikidetzaren kudeaketan eta jokabideei hezkuntza-izaeratik neurri zuzentzaileak aplikatzean.<br><br>Ikastetxerako eta ikasgeletarako araudia prebentziora bideratuta dago eta beteko ez balitz, hezkuntza-arlotik helduko litzaioke. Globalki garatu da ziklo eta maila guztientzat, eta elkarbizitza erregulatzen duten oinarrizko alderdiei heltzen die. Ikasgelarako araudia ikastetxerako adostutako alderdien bitartez egin da.<br><br>Oinarrizko prozedurak zehazten dira, gatazkei modu eraikitzailean heltzeko, bitartekaritzarako, adiskidetzerako eta konponketarako. | Ikastetxeko zuzendaritzak irmo sustatu du bizikidetza-plana eta bizikidetzan jarduteko erreferentzia bilakatu da. Irakasleek, familiek eta ikasleek (dagokienean) parte hartu duten plana aurrez zehaztutako lorpen-adierazleen bitartez ebaluatu da.<br><br>Bizikidetza kudeatzeko batzordea edo behatokia bezalako antolakuntza-egiturak dira bizikidetza kudeatzeko erreferentzia nagusia. Zuzendaritzak eta irakasleek zuzentzen dute, eta familien eta irakasleen parte-hartzea garrantzitsua da.<br><br>Ikasgeletako araudiaren oinarrizko zutabea aurreikuspena da eta arauak betetzen ez direnean hezkuntza-neurriak. Irakasle guztiek egindako tutoretza-ekintza da ziurtatzeko bidea.<br><br>Gatazkei modu eraikitzailean heltzeko prestatutako protokoloak badira. Bitartekaritzarako, adiskidetzerako eta konponketarako prozedurak praktikan jartzen dira aldizka. | Zuzendaritzak sustatu duelako eta arlo horretan lan-ibilbide jarraitua eraman delako, bizikidetzaren erreferentzia-gunea da ikastetxea. Ikastetxeko jardueretarako oinarrizko tresna da bizikidetza-plana. Hezkuntza-komunitate osoak ezagutzen eta praktikatzen ditu bere lerro nagusiak.<br><br>Estamentu guztiek parte-hartzen dute bizikidetza-batzordean edota -behatokian; horrek hartzen du bere gain bizikidetza egunero kudeatzea eta giro positiboa ziurtatzea.<br><br>Irakasleak trebatuta egotea, eta tutoretza-ekintzan ari denean gatazkei modu eraikitzailean heltzea, bitartekaritza, adiskidetzea eta konponketa sistematikoki praktikan jartzea sustatu ditu zuzendaritzak.<br><br>Bere praktikaren azterketatik, hezkuntza-ikerketatik eta jardunbide onak kontrastatzetik ikasten du. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. ELKARBIZITZA-PLANA (AGIRIEN AZTERKETA ETA ELKARRIZKETAK)

- Jasota dagoen elkarbizitza-plana diseinatzea:
  - ✓ Norberak bere eskubideez baliatzea eta gainontzeko pertsonenak errespetatzea, elkarbizitzaren funtsezko oinarria den aldetik (berdinen, generoen eta kulturen arteko harremanak, irakasleen, pertsonal ez irakaslearen eta ikasleen arteko harremanak). Ikastetxe eta gelarako arauetan konkretatuko dira.
  - ✓ Gatazkak era baketsuan konpontzeko prozedurak.
  - ✓ Elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak norberak bere gain hartzeko argibideak.
  - ✓ Elkarbizitza-Behatokia antolatzeko neurriak.
  - ✓ Hura egiteko prozesuan parte hartu duten sektore desberdinak.

- Elkarbizitza-planaren garapena
  - ✓ Sektore guztien aldetik elkarbizitza-plana hedatu eta benetan ezagutzea.
  - ✓ Prebentzioa, irakasle guztien tutoretza-jardueraren bidez eta maila pertsonalean, sozialean eta herritar gisa autonomia izateko gaitasunak garatuz.
  - ✓ Portaera desegokiak, elkarbizitzaren kontrakoak edo elkarbizitzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko hezkuntza-neurriak ezartzea.
  - ✓ Zuzendaritzaren esku-hartzea, elkarbizitzaren kontrako portaerak edo elkarbizitzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko hezkuntza-neurriak aplikatzeko orduan.
  - ✓ Portaerak zuzentzeko bide alternatiboak aplikatzearen sustapena (kontziliazioa, ordaina ematea, familiaren esparruko zuzenketa eta hezkuntza-konpromisoak).

- Elkarbizitza-Behatokia
  - ✓ Sektore desberdinen parte-hartzea.
  - ✓ Funtzioak definitzea (sentsibilizatzea, antzematea, proposamenak deribatu eta egitea).
  - ✓ Antolaketa (lan-taldeak, egutegia, jorratu beharreko gaiak).
  - ✓ Esku-hartzeen erregistroa.

2ª. IRAKASLEEN, PERTSONAL EZ IRAKASLEAREN ETA FAMILIEN PRESTAKUNTZA (AGIRIEN AZTERKETA ETA ELKARRIZKETAK).

- Prestakuntza-premiak antzeman eta beraiei lehentasuna ematea.
  - ✓ Barne prestakuntza (erkidego guztiari, sektoreren bati edo lan-taldeei zuzendua).
  - ✓ Kanpoko prestakuntza (pertsona konkretuei zuzendua).
  - ✓ Ikasitakoaren hedapena.

3ª. PRAKTIKA ONAK (AGIRIEN AZTERKETA ETA ZUZENDARITZARI ELKARRIZKETA EGITEA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxe edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du…
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008

**5. irizpidea** Aldez aurretik adostutako proiektuen arabera ikastetxea zuzentzea..

**Adierazleak**

- Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea. Ekitaldi akademikoak eta eskola-kontseiluaren eta irakasle-klaustroaren saioak deitzea eta beraietako buru izatea.
- Indarrean den araudia eta bere eskumenen esparruan lortutako akordioak betetzea eta betetzen direla ziurtatzea, eta aurrez adostutako proiektuekin era koherentean zuzentzea ikastetxea.
- Sistematikoki zabaltzea eta jakinaraztea eskolaren jomugak eta lortutako emaitzak, batez ere ikasleekiko hezkuntza-arloko erantzunean.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Zuzendariak indarrean den legediaren arabera zuzentzen du ikastetxea; bete egiten du eta atxikita dituen langileei betearazi egiten die, beraien eskubideak errespetatzeari eta eginkizunak betetzeari arreta berezia jarrita.<br><br>Ekitaldi akademikoak eta eskola-kontseiluaren eta irakasle-klaustroaren saioak deitzen ditu eta beraietako buru izaten da.<br><br>Jomugak eta erdietsitako lorpenak ez dira sistematikoki zabaltzen eta jakinarazten. Irakasle bakoitzaren banakako eskuhartzearen eremuan soilik antzematen da, baina ez zuzendaritzaren ikastetxe osorako helburu bezala. | Ikastetxea indarrean den legediaren arabera zuzentzeaz gain, ikastetxearen urteko plana (IUP) da zuzendaritzaren esku-hartzeen erreferentzia nagusia; bete egiten du eta hezkuntza-komunitate osoari betearazten dio.<br><br>Urteko memorian lorpenak eta erdietsitako jomugak biltzen dira. Zuzendaritzak koordinazio- eta gobernu-organoetan zabaltzen ditu hezkuntza-eragileen esku-hartzea sendotzeko, batez ere, irakasleena eskola-emaitzen hobekuntzan. | Ikastetxe-proiektuak (IHP, ICP, AJA…), beraien lerro estrategikoak eta ikastetxearen urteko plana (IUP) dira zuzendaritzaren esku-hartzearen erreferentzia.<br><br>Zuzendaritzak plan eta proiektu horietan hartutako akordioak betetzen eta betearazten ditu, eta lortzeko beharrezko diren aldaketak eta antolakuntza abian jartzen ditu.<br><br>Gobernurako eta barne koordinaziorako organoetan sistematikoki zabaltzen eta jakinarazten du, hezkuntza-eragile guztien esku-hartzea sendotuz eskola-emaitzak hobetzeko helburuarekin. | Proiektuetan, eta urteko planeko haien zehazteetan, jasotako lerro estrategikoen koherentzia balioesten du zuzendaritzak.<br><br>Hezkuntza-komunitate osoak bere gain hartutako lorpenak eta jomugak ikastetxearen ikur bihurtu dira eta hobetzeko balio dute.<br><br>Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiek jomugak eta lorpenak jakinarazi eta bere gain har ditzaten, ezarritako prozedura ikerketen eta jardunbide egokien bitartez kontrastatzen du. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. ILDO ESTRATEGIKOAK ETA "IKASTETXEAREN URTEKO PLANEAN " PROPOSATUTAKO HELBURUAK BAT ETORTZEA (AGIRIEN AZTERKETA ETA ELKARRIZKETAK).

- Ildo estrategikoak eta ikastetxearen proiektu desberdinak (IHP, ICP, AJA…) eta Ikastetxearen Urteko Planean duten konkrezioa bat etortzea.
- Ikastetxearen Urteko Planaren helburuak eta esku hartzeko ildoak egiaztatzea eta ikasturtean izan duten aplikazioa: Ikastetxearen Urteko Plana, kide anitzeko organoen aktak, beste koordinazio-organo batzuen aktak, etab…
-
- Memoriaren egitura eta edukia eta hurrengo ikasturteko Ikastetxearen Urteko Planarekin zein mailatan datorren bat egiaztatzea.
- Elkarrizketak, zuzendariak Ikastetxearen Urteko Planean eta ikastetxearen beste agiri batzuetan (IHP, ICP…) adierazitako helburuak zein mailatan betetzen eta betearazten dituen egiaztatzeko.

2ª. ESKURATUTAKO LORPEN ETA HELBURUEN HEDAPENA (AGIRIEN AZTERKETA).

- Agirien berrikuspena, memoriaren edo beste dokumentazio baten edukiek eskuratutako lorpenak hedatu eta jakinarazteko prozesua jorratzen duten egiaztatzeko.

3ª. GOBERNU-ORGANOEN FUNTZIONAMENDUAN ARAUDIA BETETZEA (AGIRIEN AZTERKETA).

- Baldintza formalak egiaztatzea (deialdia, gai-zerrenda, akta, akordioak jasota agertzea…).
- Ildo estrategikoak eta organo horiek proiektu desberdinetan adostutako helburuak garatu diren egiaztatzea.

4ª. PRAKTIKA ONAK (AGIRIEN AZTERKETA ETA ZUZENDARITZARI ELKARRIZKETA EGITEA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
    - ✓ Ikastetxeak edo erakundeak bisitatzen ditu.
    - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
    - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du.
    - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…


AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008

## 1. DIMENTSIOAREN BALORAZIOA

| **1. DIMENTSIOA**<br>HELBURUEN ETA ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN DEFINIZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. IRIZPIDEA**<br>Hezkuntza-erkidegoko kide desberdinen premiak eta itxaropenak eta ikastetxearen testuingurua aztertzea. | **2. IRIZPIDEA**<br>**Zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxearen proiektuen bidez (IHP, ICP, urteko plan eta memoriak, AJA eta ikastetxea antolatzeko beste tresna batzuk) ildo estrategikoak definitu eta sustatzea, antzemandako premiei eta itxaropenei erantzuna emateko** | **3. IRIZPIDEA**<br>Testuingurua kontuan hartuz, hezkuntza-erantzuna berrikusi eta egokitzea eta ikastetxea garatzeko aukerak bilatzea. | **4. IRIZPIDEA**<br>**Eskolan elkarbizitza-giro bat lortzeko mekanismoak finkatzea.** | **5. IRIZPIDEA**<br>Aldez aurretik adostutako proiektuen arabera ikastetxea zuzentzea. |
| | | | | |
| **DIMENTSIOAREN BALORAZIO GLOBALA** | | | | |
| | | | | |
| **OHARRAK** | | | | |
| | | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

## **2. DIMENTSIOA:** IKASTETXEAREN ZUZENDARITZA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

**6. irizpidea** Talde-lana sustatzea irakasleen artean.

**Adierazleak**

- Ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko talde-lana indartzea, koordinazio-organoen bidez beharrezko diren antolakuntza-egiturak sustatuz.
- Eraginkortasuna ikastetxeko koordinazio- eta gobernu-organoen jardueran.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Orokorrean, legez horrela behartzen delako soilik dago irakasleen arteko talde-lana. Irakaskuntza koordinatzeko organoen bileretan (zikloak, sailak, pedagogia-koordinazioak eta beste batzuk) kide diren irakasleen ekimenez sortutako gaiei soilik heltzen zaie; zuzendaritzak ez du ikastetxearentzat interesgarriak diren gaien inguruko talde-lanik bultzatzen.<br><br>Koordinazio-organo bakoitzak bere edukiarekin erlazionatutako gaiei soilik heltzen die, eta beraz, sakabanaketa eta koherentzia eza handia egon daitezke landutako edukietan. | Araudiak agintzen dituen funtzioak esleitzen dizkie zuzendaritzak koordinazio- eta gobernu-organoei; horrez gain, zuzendaritzak iradokitako beste lan batzuk ere izan daitezke organo horientzat.<br><br>Koordinazio-organoen artean zehaztasunez banatuta daude funtzioak. Horietako batzuk ikastetxe osoarentzat komunak diren gaiak lantzen dituzte (curriculumari buruzkoak edo maila, ziklo, sail eta modulu guztiei eragiten dietenak), eta beste batzuk gai, ziklo, sail edo modulu bati eragiten dietenak.<br><br>Irakasleen esku-hartzearen alderdi nagusiei (helburuak, metodologia, edukiak, ebaluazioa eta sustapena…) heltzera bideratuta dago irakasleen koordinazioa, ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko. | Zuzendaritzak irmotasunez sustatzen du irakasleen talde-lana, irakaskuntza koordinatzeko organoak indartuz eta organo horientzako lan zehatzen proposamena eginez. Koordinazio-organoak araudiak agindutakoak dira, baina ikastetxe barruko akordioen ondorioz beste osagarri batzuk ere badira.<br><br>Zuzendaritzak bereizi egin ditu ikastetxe osoari eragiten dieten gaiak (lehendabizi eztabaidatu eta adostu behar direnak) eta koordinazio-maila txikiago bati eragiten dietenak (geroago landuko direnak, ezarritako lehentasunen arabera).<br><br>Irakasleen koordinazioaren helburu nagusia ikasgelako eta ikastetxeko esku-hartzearen (curriculuma) eta antolatzeko moduen (mailaka, zikloka, gaika, eta abar.) alderdiei heltzea izatea sustatu du zuzendaritzak. Helburua ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emanez eskola-emaitzak hobetzea da. | Zuzendariak balioa ematen dio koordinazio- eta gobernu-organoen eraginkortasunari, bai bileretako denbora errentagarri bihurtzerakoan, bai haietatik eratorritako jardunbideak gauzatzerakoan, eta beharrezko aldaketak sartzen dituzte.<br><br>Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzen dituzten taldeak edo beste antolakuntza-egitura batzuk sortzen dira.<br><br>Ikasle eta talde/ikasgela bakoitzari emaitza hobeak emango dituen hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko, zuzendaritzak ziurtatzen du irakasleen koordinazioaren helburua irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei heltzea dela. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. IRAKASLEAK KOORDINATZEKO ORGANOEN OSAKETA (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Irakasleak koordinatzeko organoen osaketa: koordinazio pedagogikoko batzordea, ziklo eta kurtso mailako irakasle-taldeak, departamentuak, proiektuen ekipoak…

2ª. IRAKASLEAK KOORDINATZEKO ORGANOEI ESLEITUTAKO FUNTZIOEN GARAPENA (AGIRIEN BERRIKUSPENA ETA ELKARRIZKETAK).

- Ikasturte honetan lehentasunezko jarduerak:
  - ✓ Koordinazioaren helburuak.
  - ✓ Funtzioen banaketa koordinazio-organoen artean.
  - ✓ Lantzen diren gaien zerrenda.
- Aurrekoa egiaztatzeko elkarrizketak: zuzendaritza-taldea/ irakasle koordinatzaileak/beste irakasle batzuk

3ª. KOORDINAZIO-ORGANOEN ERAGINKORTASUNA. (AGIRIEN BERRIKUSPENA.KOORDINATZAILEEKIN ELKARRIZKETA).

- Irakasleen antolaketan duten eragina.
  - ✓ Egiazko parte-hartzea.
  - ✓ Akordioen jarraipena.
  - ✓ …
- Ikasleen emaitzetan duten eragina
  - ✓ Elkarbizitza-giroari dagokionez,
  - ✓ Curriculum-garapenari dagokionez,

**7. irizpidea** **Zuzendaritza-taldearen lidergoa sustatzea, ardurak eskola-antolaketa guztian banatzea eta irakasleen inplikazioari eta konpromisoari laguntzea.**

**Adierazleak**

- Ikastetxeko jarduera guztien lidergoa eta koordinazioa, irakasleen klaustroari eta eskola-kontseiluari dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Zuzendaritza-taldeko gainerako kideak proposatzen ditu, klaustroa eta OOGa jakinaren gainean jarrita.
- Irakasleek ikastetxeko jarduera guztietan parte hartu dezaten bultzatzea, funtzioak eta ardurak esleituz, banakoen eta taldeen ahaleginak eta arrakastak onartuz eta aintzat hartuz, eta beraien proposamenak eta ekarpenak koordinazio- eta gobernu-organoetan kontuan hartuz.
- Informazioa elkartrukatzeko komunikazio-bideak etengabe irekita izatea, parte-hartzea bultzatzeko eta erabakiak hartzerakoan adostasunera iristeko.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeko jarduera guztiak koordinatzeko lege-baldintzak betetzen ditu zuzendaritzaren lidergoak, irakasleen klaustroari eta eskola-kontseiluari dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzen ditu, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenari jakinarazi ondoren.<br>Oinarrian, muturreko bi egoera hauetako batera hurbiltzen da zuzendaritzaren jardunbidea: lehena, zuzendaritza-taldea, gainerako irakasleak eta beste hezkuntza-eragileak forma aldetik soilik zuzentzea, edo bigarrena, erabakiak bere gain hartzea eskolaren antolakuntzan banatu gabe.<br><br>Irakasleen banakako edo taldekako konpromisoa eta inplikazioa (zikloak, sailak, koordinazio-organoak...) ez datoz bat zuzendaritzak bultzatutako estrategiekin; horrek, orokorrean, ez ditu onartzen antolakuntzako banakoen eta taldeen ahaleginak eta arrakastak.<br><br>Badira komunikazio-bideak zuzendaritza eta irakasleen artean, baina ez dira ikastetxeko estrategia bezala bultzatzen komunikazioa, erabakiak hartzea eta adostasuna. | Zuzendaritzaren lidergoak hau sustatzen du:<br>a) Funtzioen eta arduren oinarrizko banaketa zuzendaritza-taldeko kideen artean. Zuzendariak koordinatzen du taldea.<br>b) Indarrean den legearen arabera banatzea irakasleen ardurak (curricularra, ikasturtearen hasierako ebazpena, etab.).<br><br>Irakasleek koordinazio-organoetan parte hartzea sustatzen du zuzendaritzak; egindako lana ere aitortzen du eta beraz, haien proposamenak eta ekarpenak kontuan hartzen dira.<br><br>Informazioaren komunikazioa eta kudeaketa sustatzen ditu zuzendaritzak. Aukerak eta iritziak aztertuz hartzen dira erabakiak. | Zuzendaritzak konpromisoa hartuta du lidergoa antolakuntza osoan banatzeko.<br>Funtzioen adostutako banaketa argia dago zuzendaritza-taldeko kideen artean. Zuzendariak koordinatzen du taldea eta kide bakoitzaren lidergoa bultzatzen du.<br><br>Irakasleen artean ardura banaketa egin da, indarrean den legediaren eta ikastetxearen beharren arabera (proiektuak, helburuak, beharrak). Behar horien ziurtasun formala dago.<br>Zuzendaritzak parte hartzeko egiturak ezartzen ditu eta irakasleak aitortuak izateko mekanismoak zehaztu ditu.<br><br>Informazioa komunikatzeko eta kudeatzeko bideak zehaztuta ditu zuzendaritzak, eta sistematizatu egin du akordio- eta adostasun-estrategien bidez erabakiak hartzea. | Irakasleen artean arduren banaketa oso argia da. Zeregin eta funtzio horiek banatzeko irizpideak ikastetxe osorako adosten dira, eta zuzendaritzak sistematikoki gauzatzen ditu. Irakasle bakoitzari ardurak ematen dizkio zuzendaritzak, eta bakoitza bere esku-hartzea ongien hobetu dezakeen tokian jartzen du.<br><br>Zuzendaritzak jardunbide onen bidez partekatzen eta ikasten ditu ardurak banatzeko eta langileen aitortzarako zehaztutako prozedurak.<br><br>Sistematikoki berrikusten eta egokitzen dira ardurak esleitzeko irizpideak, informazio- eta komunikazio-bideen funtzionamendua eta erabakiak hartzeko sistema. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. FUNTZIOEN BANAKETA ZUZENDARITZA-TALDEKO KIDEEN ARTEAN (AGIRIEN BERRIKUSPENA. ELKARRIZKETAK).

- Funtzioen banaketa eta zuzendaritzak, haien garapena laguntzeko, egiten duen lidergoa egiaztatzea.
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: zuzendaritza-taldea.

2ª. IRAKASLEEI ARDURAK ESLEITZEA (AGIRIEN BERRIKUSPENA. ELKARRIZKETAK).

- Irakasleei ardurak nola banatzen zaizkien egiaztatzea: tutoretzen esleipena, koordinazioak, proiektuetan lan egitea, etab…(Lan eta funtzioak esleitzeko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa).
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: irakasleak/koordinatzaileak.

3ª. INFORMAZIOA EMATEKO ETA KOMUNIKATZEKO BIDEAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA. ELKARRIZKETAK).

- Informazioa mailetara, zikloetara, departamentuetara, GEra, etab…era helarazteko dauden prozedurak eta barne sistemak egiaztatzea: AJA edo beste dokumentazio batean.
- Mailen, zikloen, departamentuen,…etab.en informazioa helarazteko dauden barne prozedurak eta sistemak egiaztatzea. AJAn edo beste dokumentazioren batean aurki daiteke.
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: zuzendaritza-taldea/irakasleak/koordinatzaileak.

4ª. ERABAKIAK HARTZEKO SISTEMA (AGIRIEN BERRIKUSPENA. ELKARRIZKETAK).

- Agirien berrikuspena, erabakiak nola eta zein organotan hartzen diren egiaztatzeko: koordinazio- eta gobernu-organoen aktak…
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketa: zuzendaritza-taldea/irakasleak/koordinatzaileak.

5ª. PRAKTIKA ONAK (AGIRIEN AZTERKETA ETA ZUZENDARITZARI ELKARRIZKETA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxeak edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du.
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu.


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

**8. irizpidea** Prestakuntza jasotzea, lana hobetzeko eta lidergoan oinarritutako dohain eta portaera positiboak erakusteko; irakasleen parte-hartzea sustatzea prestakuntzan eta berriztapenean.

**Adierazleak**

- Lidergo-gaitasunaren portaerak eta bertuteak eta prestakuntzarako interesa agertzea, araudiaren eta ikastetxeko funtzionamenduaren gai garrantzitsuenak ezagutuz, eta hezkuntza-komunitateko eta inguruko erakundeetako hainbat sektoreren beharrak ulertzeko, erantzuteko eta asetzeko ekimenak hartuz.
- Ikastetxeko lerro estrategikoekin bat etorriz irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko prestakuntza eta berrikuntza laguntzea eta sustatzea, banaka nahiz kolektiboki, baliabide eta laguntza egokiak eskainiz.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Zuzendariak gutxi garatuta ditu lidergo positiboari dagozkion gaitasunak; besteak beste, autogestiorako trebetasun pertsonalak (iraunkortasuna, autonomia, malgutasuna, prestakuntzarako gaitasuna…) eta hezkuntza-komunitateko eta inguruko erakundeetako hainbat sektoreren beharrei erantzuteko trebetasun sozialak (adibidez: enpatia, laguntzarako, mugak jartzeko, eta egoera zailak bideratzeko gaitasuna).<br><br>Ikastetxearen funtzionamenduari eta antolakuntzari buruzko araudiaren oinarrizko ezagutza dauka.<br><br>Ez dago ikastetxearen prestakuntzarako ildo zehatzik, beraz, irakasleen banakako eta taldekako ekimenei eta beharrei lotuta egiten da. | Zuzendariak lidergo positiboarekin lotutako funtsezko gaitasunak ditu, bai trebetasun pertsonalei dagokionean, bai trebetasun sozialei eta profesionalei dagokionean (pertsona-taldeak eta baliabide materialak kudeatzeko gaitasuna, araudi espezifikoa eta orokorra nahiz eskola-antolakuntzaren teoria eta praktika ezagutzeko gaitasuna, ebaluatzeko gaitasuna…).<br><br>Aplikatu egiten ditu, besteak beste, curriculumaren, ikastetxeko funtzionamenduaren eta antolakuntzaren, eta eskola-komunitateko sektoreen eskubideen eta betebeharren araudia, eta hezkuntza-jarduera hobetzeko zerbitzura jartzen ditu.<br><br>Administrazioak eskaintzen dituen prestakuntzarako aukerez baliatzen da eta parte hartzen du.<br><br>Zuzendaritzak, irakasleekin adostuta, prestakuntzarako ildo nagusiak zehaztu ditu. Ikastetxeko dokumentazioan jasotzen ditu eta antolatzeari ekiten dio. | Zuzendariak lidergo positiboa egiten du bere trebetasun pertsonalek, sozialek eta profesionalek bultzaturik.<br><br>Aplikatu egiten ditu araudi hauek: curriculumarena, ikastetxeko funtzionamenduarena eta antolakuntzarena, eskola-komunitateko sektoreen eskubideena eta betebeharrena, eta juridiko eta administratiboarena. Horrez gain, ikasleen hezkuntza-eskubidearen zerbitzura jartzen ditu beti, baita zuzendaritzak berak eta irakasleek eskubide hori ziurtatzeko bultzatu behar dutenera ere.<br><br>Administrazioak edo beste erakunde batzuek eskaintzen dituzten prestakuntzarako proposamenetan parte hartzen du, eta bere funtzioaren jardutea bultzatzen dutenak lehenesten ditu.<br><br>Irakaskuntza-jarduera hobetzeko asmoz, zuzendaritzak irakasleen prestakuntzari buruz erabakitzen du. Horretarako, helburuak zehazten dira, prestakuntza-ekintzak antolatzen dira eta lortu nahi diren helburuekiko duten eragina ebaluatzen da. | Zuzendariak bere lidergo-jarduera autoebaluatzen du, eta ikerketatik eta jardunbide onetatik ikasten du.<br><br>Zuzendariak protokoloak egiten ditu araudia ezagutzeko, batez ere eskubideei eta betebeharrei dagokiona, eta araudia irakaskuntzan aplikatzeak dituen ondorioak ezagutzeko.<br><br>Zuzendaritza-funtzioa betetzeko esperientzia zabala eskuratu du eta zenbait forotan partekatzen du.<br><br>Ikastetxea prestakuntzarako erreferentzia (ikasten duen organizazioa) bihurtu da, bere kideen eta kanpoko beste batzuen garapen profesionala ahalbidetuz. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. ZUZENDARIAREN LIDERGO POSITIBOARI LOTUTAKO BERTUTEAK (ELKARRIZKETAK)

- Bertute pertsonal, profesional eta sozialak zehazteko elkarrizketak (zuzendaritza-taldea/irakasleak/koordinatzaileak)
    - ✓ Autogestiorako trebetasun pertsonalak (jarraikitasuna, autonomia, malgutasuna, prestatzeko gaitasuna…).
    - ✓ Gizarte-trebetasunak (empatia, laguntzeko, mugak jartzeko, egoera konplexuak bideratzeko gaitasuna…).
    - ✓ Trebetasun profesionalak (giza taldeak eta baliabide materialak kudeatzeko eta araudi espezifikoa eta orokorra ezagutzeko gaitasuna, eskola eta ebaluazioa antolatzeko teoria eta praktika…).

2ª. ZUZENDARIAREN PRESTAKUNTZA (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Agirien berrikuspena, jasotako prestakuntza egiaztatzeko: egindako ikastaroen zerrenda, joaten den mintegi edo foroak, irakurketak…

3ª. IKASTETXEARI BURUZKO ETA BESTE MOTA BATEKO PRESTAKUNTZA (AGIRIEN BERRIKUSPENA. ELKARRIZKETAK).

- Agirien berrikuspena, jorratutako gaiak, praktikan jarriko den prestakuntza erabakitzeko prozedurak, prestakuntzaren antolaketa eta horren eragina egiaztatzeko: prestakuntzari buruzko dokumentazioa.
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: zuzendaritza-taldea/irakasleak/koordinatzaileak.

**9. irizpidea** **Ikastetxearen baliabideak eraginkortasunez kudeatu eta administratzea..**

**Adierazleak**

- Ikasleei hezkuntza-arloko erantzun hobea emateko, giza baliabideak antolatzea ikastetxearen hezkuntza-eskaintzarekin eta planifikazioarekin bat etorriz; adostutako, zehaztutako eta etengabe berrikusitako helburuetan oinarrituta.
- Ikastetxearen aurrekontua egitea koordinatzea. Baliabide ekonomikoak eta finantzarioak (kontratazioak, gastuak eta ordainketak…) modu eraginkorrean kudeatzea, aurrekontua egiteko eta abian jartzea kontrolatzeko adierazle egokiekin, ikastetxea kudeatzeko urteko programarekin bat.
- Ikastetxearen estrategiaren eta planifikazioaren arabera planifikatzea eta kontrolatzea informazioa sartzeko eta irteteko sistema, eta instalazioen, materialen eta baliabide teknologikoen erabilera. Dokumentazioaren kudeaketa egokia ziurtatzen duten mekanismoak ezartzea.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Orokorrean hartuta, ikastetxean ez dago baliabideak, gizatiarrak nahiz materialak, kudeatzeari eta administratzeari buruzko irizpide zehazturik, eta irizpideren bat baldin badago, bata bestearekiko ausaz eta bakarka agertzen dira, inoiz ez zuzendaritzak bultzatutako ildoa bezala. Lege-baldintzak forma aldetik betetzera mugatzen da zuzendaria. Ikastetxea kudeatzeko urteko programa jarraituz kontratazioak egiten ditu, eta gastuak baimentzen eta ordainketak agintzen ditu.<br><br>Era berean, ikastetxeko ziurtagiriei eta agiri ofizialei oniritzia ematen die, legez ezarritako prozedura erabiliz.<br><br>Dokumentuen eta informazioaren kudeaketak funtzio burokratikoa du batez ere, ez du loturarik inplikatzea eta erabakiak hartzea bilatzen dituen informazioaren kudeaketa-sistemarekin. | Zuzendaritzak helburuak eta oinarrizko irizpideak zehaztu ditu baliabideak hiru esparrutan administratzeko:<br>a) Giza baliabideak<br>b) Baliabide ekonomiko eta finantzarioak<br>c) Informazioarekin, dokumentazioarekin, instalazioen erabilerarekin eta ikastetxeko beste zerbitzu batzuekin harremana duten baliabideak<br>Zuzendaritzak esleitzen ditu giza baliabideak (talde/gela bakoitzari irakasleak esleitzea, baita ikasle bakoitzaren arretarako ere), ikasleen ebaluazioan antzemandako beharrizanei lotuta.<br><br>Informazioaren, dokumentazioaren eta baliabide ekonomikoen kudeaketa irakasleen lana laguntzeko erabiltzen da, eta horrela haien irakaskuntza-jardueraren antolakuntza eta inplikazioa hobetzeko. | Ikastetxeko baliabideak eraginkortasun-irizpideekin kudeatzen eta administratzen ditu aipatutako hiru eremuetan: baliabideak erabiliz zein helburu lortu nahi diren zehazten du, eta aldian-aldian erabilerarekin lortutako emaitzak ebaluatzen ditu.<br><br>Zuzendaritzak, aurrez ezarritako prozedura baten arabera:<br>- giza baliabideak esleitzen ditu, zailtasun gehienak dituzten talde/gelak eta ikasleak lehenetsiz, baina gainerakoak ahaztu gabe<br>- irakasleen antolakuntza eta irakaskuntza-jarduerarekiko inplikazioa hobetzeko erabiltzen ditu osterantzeko baliabideak.<br><br>Zuzendaritzak bultzatzen du baliabide batzuk hezkuntza-komunitateko beste sektore batzuen beharrizanak asetzera bideratzea. Hala nola, familiei eskolaz kanpoko jardueren kudeaketan, udalari beste leku batzuen erabileran, elkarteei, eta abar.). | Baliabideen kudeaketa ikastetxe osoaren ildo estrategikoa edo proiektua izatea lortu du zuzendaritzak, eta beraz, ikasle guztiek arrakasta lortzeko lehentasunezko helbururako erabiltzen dira beti. Horretarako, irakasleen antolakuntza hobetzeko hartu behar diren neurriak ziurtatzen ditu.<br><br>Zuzendaritzaren helburuetako bat da baliabide batzuk hezkuntza-komunitateko beste sektore batzuen beharrak asetzera bideratzea (gurasoak, gurasoen elkarteak, elkarteak, udala…), haiekin batasun iraunkorrak lortzeko. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª BALIABIDEAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK (AGIRIEN AZTERKETA).

- Baliabideak erabiltzeko irizpideak dauden edo ez egiaztatzea: kudeaketa-proiektua, AJA, Ikastetxearen Urteko Plana, beste dokumentazio bat…

3ª. BALIABIDE PERTSONALAK ESLEITZEA (AGIRIEN AZTERKETA. ELKARRIZKETAK).

- Pertsonala esleitzeko zehaztutako irizpideak aplikatzen diren egiaztatzea.
- Giza baliabideen esleipena eta ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta lotzea.
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: zuzendaria, ikasketa-burua eta irakasleak.

3ª. BESTE BALIABIDE BATZUK ESLEITZEA (AGIRIEN AZTERKETA. ELKARRIZKETAK).

- Baliabide ekonomikoak eta informazioari lotutakoak esleitzeko definitutako irizpideen aplikazioa, dokumentazioa eta instalazioak eta ikastetxeko beste zerbitzu batzuk egiaztatzea.
- Baliabideen esleipena eta ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta lotzea.
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: zuzendaria, idazkaria, ikasketa-burua…

4ª. ERAGINKORTASUNA BALIABIDEAK KUDEATU ETA ADMINISTRATZEKO ORDUAN (AGIRIEN AZTERKETA).

- Baliabideen esleipenak ondorengo esparruetan duen eragina egiaztatzeko irizpideak izatea:
  - ✓ Giroa eta elkarbizitza.
  - ✓ Aniztasunaren arreta.
  - ✓ Antolaketa.
  - ✓ Metodologia.

5ª. PRAKTIKA ONAK (AGIRIEN AZTERKETA ETA ZUZENDARITZARI ELKARRIZKETA EGITEA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxeak edota erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du.
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## 2. DIMENTSIOAREN BALORAZIOA

| 2. DIMENTSIOA<br>IKASTETXEAREN ZUZENDARITZA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA | | | |
|---|---|---|---|
| **6. IRIZPIDEA**<br>Talde-lana sustatzea irakasleen artean. | **7. IRIZPIDEA**<br>**Zuzendaritza-taldearen lidergoa sustatzea, ardurak eskola-antolaketa guztian banatzea eta irakasleen inplikazioari eta konpromisoari laguntzea.** | **8. IRIZPIDEA**<br>Prestakuntza jasotzea, lana hobetzeko eta lidergoan oinarritutako dohain eta portaera positiboak erakusteko; irakasleen parte-hartzea sustatzea prestakuntzan eta berriztapenean. | **9. IRIZPIDEA**<br>**Ikastetxearen baliabideak eraginkortasunez kudeatu eta administratzea.** |
| | | | |
| **DIMENTSIOAREN BALORAZIO GLOBALA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR
ER
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## 3. DIMENTSIOA: LIDERGO PEDAGOGIKOA

**10. irizpidea** **Irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzeko behar diren curriculum-neurriak sustatzea..**

**Adierazleak**

- Programazio didaktikoak eta ikasgeletakoak ikastetxeko proiektuekin koherentzian egiten eta berrikusten direla ziurtatzea. Ikasleei eta familiei ezagutarazteko prozedurak ziurtatzea.
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen hobekuntza eta ikasleen ebaluatzea bultzatzeko neurri curricularren aldaketa sustatzea, horrela ikasleen errendimendua hobetzeko.
- Ikasketarako denbora luzatzea eta optimizatzea (eskolak ordurako hastea, ikasgelan denbora modu eraginkorrean erabiltzea, beste denbora eta leku batzuk erabiltzea…)

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ikastetxean dauden programazioak irakasle, ziklo edo sail bakoitzari dagozkio. Beraz, ez dago nahitako jarraikortasunik ikastetxean ematen den lehen mailatik azkenekora, testuliburuaren argitaletxeak zehazten duena ez bada.<br><br>Programazioak berrikusteko prozedura sistematikorik ez dago, eta aldaketak guztiz ezohikoak dira.<br><br>Irakasle batzuek, normalean ahoz, esaten dizkieten programazioen berri daukate familiek eta ikasleek.<br><br>Gelak dira ikasketak lortzeko ikastetxeko leku bakarrak, beraz ez da hezkuntzarako asmoa antzematen jolastokian, korridoreetan, hormetan…<br><br>Agertzearen eta ordurako iristearen gaineko kontrola irakasle bakoitzaren esku dago. | Programazioa sistematikoki lantzen duten irakasleen, zikloen eta sailen lana sustatzen du zuzendaritzak, ikastetxe osoan aurreratzen segitzeko bide bezala.<br><br>Programazioak berrikusten direnean, sartutako aldaketak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan antzemandako beharrei emandako erantzunak dira.<br><br>Ikastetxe osorako prozedura ezarri da. Normalean ahozkoa izaten da, eta ikasturte hasierako bileretan jakinarazten zaie familiei eta ikasleei; hain zuzen ere, ikasturtean kontuan izango den programazioaren alderik garrantzitsuenak jakinarazten zaizkie.<br><br>Ikasgelei bezala ikastetxeko beste leku batzuei ere hezkuntza-asmoa ematen zaie.<br><br>Zuzendaritzak arauak ezartzen ditu ikasleak agertzearen eta ordurako iristearen gaineko kontrolari buruz. | Zuzendaritzak apustu argia egin du, programazioaren bidez, ikasgai bakoitzean eta dagokion ikasturtearen edo zikloaren eremu bakoitzean eskatzen den ikasketa-mailaren segida logikoa garatzeko. Ikastetxeak aurrez zehaztutako ildoak errespetatzen dituen ikasturte/ziklo bakoitzarentzako programazioan zehazten da hori.<br><br>Zenbait egiturek (koordinazio pedagogikorako batzordea, sailak, zikloetako taldeak, mailetakoak…) programazioaren edukiaren hainbat alderdi berrikusten dituzte eta ikasleen ikaskuntza hobetzeko egoki irizten dituzten hobekuntzak zehazten dituzte.<br><br>Familiei eta ikasleei programazioak jakinarazteko hainbat prozedura daude, hala nola, ebaluazio-irizpideak argitaratzea, web-orria, ikasturtearen hasierako gutunak…<br><br>Ikastetxeko leku gehienak ikasketetarako prestatuta daude.<br><br>Ikasleak eta irakasleak agertzea eta ordurako iristea kontrolatzeko, ziurtatzeko eta bultzatzeko prozedurak badira. | Indarrean den legedia jarraituz, ikasturte bakoitzean programazio didaktikoak izango direla ziurtatzen du zuzendaritzak. Horiek koherenteak dira IHPrekin, ICPrekin eta ikastetxeko beste proiektu batzuekin, beraien zehazpenak dira, hain zuzen ere. Gainera, ikastetxean ematen den maila, ziklo eta/edo aldi bakoitzarentzat segida logikoa zehazten dute eskatzen den edukien banaketan eta lortze-mailan.<br><br>Programazioen berrikuste- eta hobekuntza-prozesua ziurtatzen ditu; egindako aldaketek irakaskuntza-prozesuekin eta ikasleen ikaskuntza-prozesuekin lotura izan dezatela, baita familiek eta ikasleek haiei buruz jakin behar dutenarekin ere.<br><br>Ikaskuntza hobetzeko denboren eta lekuen kudeaketa optimizatzen du, eta aukera ematen du ikastetxeko leku guztiek hezi dezaten.<br><br>Jardunbide onak ikasten eta partekatzen ditu beste erakunde batzuekin (on-line ikasketak, berdinen arteko tutoretza, unitate didaktikoak diseinatzea…). |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. PROGRAMAZIOEN ARTXIBOA, ZUZENDARITZAREN ONIRITZIAREKIN.

- Kurtso/ziklo bakoitzeko arlo/esparru guztietarako programazioak egotea. (Agian ez dira zuzendaritzan egongo, zikloaren, departamentuaren…artxiboan baizik. Artxibo elektronikoetan ere egon daitezke. (Edonola ere, bistaratu behar dira, daudela egiaztatzeko).

2ª. PROGRAMAZIOEN BERRIKUSPENA.

- Programazioen berrikuspena ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesuari edota irakasteko prozedurei lotuta dauden egiaztatzea:
  - ✓ Klaustroaren akta.
  - ✓ Kurtso eta ziklo mailako taldearen akta.
  - ✓ Departamentuaren akta.
  - ✓ Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen akta.
  - ✓ Urteko memoria.

3ª. EBALUATZEKO, BESTE KURTSO BATERA PASATZEKO ETA TITULAZIOA EMATEKO IRIZPIDEAK FAMILIEI ETA IKASLEEI JAKINARAZTEKO ERABILITAKO PROZEDURA.

- Ebaluatzeko, beste kurtso batera pasatzeko eta titulazioa emateko irizpideak (azken biak Oinarrizko Irakaskuntzan bakarrik) familiei eta ikasleei jakinarazteko prozedurak dauden egiaztatzea:
  - ✓ Zirkularraren edo jakinarazpen idatziaren bidez.
  - ✓ Ikastetxearen webaren bidez.
  - ✓ Bilera desberdinetan (deialdiaren erregistroa, aktak…).

4ª. IKASTETXEAREN ESPAZIOAK (behaketa)

- Ikastetxearen espazio guztiek hezteko asmoa duten egiaztatzea:
  - ✓ Korridoreen, hormen, gelen…apainketa.
  - ✓ Patioa (esperimentatzeko aukera ematen duten instalazioak…)
  - ✓ Tailerrak.
  - ✓ Baratzeak.

5ª. ORDUTEGIAK (begi-bistan daudenak jasoko dira)

- Denboraren kudeaketa optimizatzen den egiaztatzea:
  - ✓ Ordutegiak zabaltzea (harrera-ordutegia, eskolaz kanpoko jarduerak…).
  - ✓ On-line ikasteko plataforma.
  - ✓ Ikasleen hutsegiteak eta puntualtasuna kontrolatzeko prozedura.
  - ✓ Ordutegiak egitean erabiltzen den prozedura, klaseen arteko tartean denbora gal ez dadin.


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

**11. irizpidea** **Aniztasunari arreta emateko neurriak sustatzea.**

**Adierazleak**

- Ikasleria osoaren aniztasunerako arreta ziurtatzeko prozedurak bultzatzea, ikasle bakoitzari (zailtasun- nahiz bikaintasun-egoeran izan arren) eman beharreko hezkuntza-arloko erantzunarekin batera.
- Hezkuntza-arloko erantzun dibertsifikatuak zehaztea, ikasleen beharretara egokituta, arreta berezia eskainiz berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei (ahalmen urritasuna, hezkuntza-sisteman berandu sartzea, adimen-gaitasun handiak, baldintza pertsonalak edo eskolako historiarenak, edo desberdintasun sozialak).
- Eskola inklusiboaren printzipioen arabera indartzea laguntzen eta baliabideen antolakuntza eta kudeaketa: agerpena, parte-hartzea eta lorpena, eguneroko testuinguruan.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ikasle bakoitzari eman beharreko erantzuna, besteak beste tutoreen, irakasle espezialisten, aholkularien eta orientatzaileen esku dago, baina sistematizatzen eta ziurtatzen duen ildorik ez dauka ikastetxeak.<br><br>Ikasle bakoitzarentzat hartutako neurriak egokiak eta eraginkorrak izan diren berrikusteko prozedura sistematikorik ez dago.<br><br>Aniztasunerako arretaren barruan erantzun handiagoa ematen zaie ahalmen urritasunekin erlazioa duten beharrizanei, eta gutxiago gaitasun handiekin, gizarte-egoera ahulekin eta afektibitate-arazo larriekin erlazioa dutenei. | Zuzendaritzak, besteak beste, irakasleen, zikloetako taldeen eta sailen lana koordinatzen du. Horiek ikasleentzako erantzun bereizgarriak garatzen egiten dute lan, ikastetxe osoan ezartzeko lehenengo urrats bezala.<br><br>Eskaintzen diren erantzun bereizgarriak berrikusi eta aldaketak proposatzen direnean, behar duten ikasleen arreta hobetzearekin lotzen dira aldaketa horiek.<br><br>Ikastetxeak deialdi instituzionaletan parte hartzen du bere ikasleriaren aniztasunari erantzuna emateko (HIPI, CDE, HBSP, programa osagarriak, ELP…).<br><br>Ahalmen urritasunarekin erlazionatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleez gain, beste esku-hartze batzuk diseinatzeari ekin zaio hasi berrientzako, joaten ez direnentzako edo gaitasun handikoak direnentzako. | Ikasleen beharrei erantzuna ematea bultzatzen du zuzendaritzak, hala nola: ahalmen urritasunetik eta portaera nahasmendu larrietatik eratorritako beharrak, eta ikasketa-arazoekin, gizarte-egoera ahulekin, gaitasun handiekin eta beste kultura batzuetatik etorri izanarekin erlazionatutako beharrak.<br><br>Horretarako beharren eta horiei erantzuteko baliabideen diagnostikoa ziurtatzen du. Gainera, baliabideak eskatzea kudeatzen du, eta behar izanez gero, beharrizanak lehenesten ditu dauden baliabideekin erantzuteko.<br><br>Ikastetxean dagoen programa bereizgarri bakoitzaren jarraipenerako/ebaluaziorako eta hobekuntzarako mekanismoak ezartzen ditu.<br>Deialdi instituzionaletan parte hartzea sustatzen du, ikasleriaren aniztasunari erantzuna emateko, bereziki tutoreak inplikatuz.<br><br>Hainbat zerbitzurekiko eta erakunderekiko koordinazioaren buru da. | Ikastetxeko ikasle bakoitzak bere beharren araberako hezkuntza-arloko erantzuna izan dezan arduratzen da zuzendaritza (erritmo desberdinei errespetua, curriculuma garatzeko eta zabaltzeko programak, hezkuntza-indargarriak, CEIk…).<br><br>Emandako erantzunen berrikuspena kontrolatzen du eta ikasketak hobetzen dituzten beharrezko aldaketak onartzen ditu, ikuspegi inklusiboetan aurrera eginez.<br><br>Gehien behar duten ikasleentzat zuzentasuna bultzatzen duten erantzunak aplikatzea ziurtatzen du (besteak beste, giza baliabide, material eta denbora gehiago).<br><br>Bere ikastetxea ikasten duen organizazioa izaten laguntzen du, aitzindari diren beste organizazio batzuei begiratuz (hezkuntza bereizgarrian, azaleratzen ari diren arazoetan, portaera-arazo larrietan, beste erakunde batzuekin sarean lan egiten…) eta haien jardunbide onak partekatuz. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

## EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. PREMIEN DIAGNOSTIKOA (AGIRIEN OINARRIA).

- Ikastetxeko zuzendaritzak ikasleak ezagutzen dituen egiaztatzea.
  - ✓ Hezkuntza-premia berezietako ikasleen zerrenda (elbarritasuna, gizarte-egoera ahulak, gaitasun handietako ikasleak…).
  - ✓ Hezkuntza-laguntzako beste premia espezifiko batzuk dituzten ikasleen zerrenda.
  - ✓ Absentismoaren erregistroa (hiruhilekoko sintesia).
  - ✓ Ikasle berrien erregistroa.
  - ✓ Eskola-emaitzen azterketa.
  - ✓ Diagnostikoaren ebaluazioaren azterketa.
  - ✓ Beste ebaluazio batzuen azterketa.

2ª. PREMIA HORIEI EMATEN ZAIEN ERANTZUNA (AGIRIEN OINARRIA).

- Ikasleen premien arabera erantzun desberdinak ematen diren egiaztatzea:
  - ✓ ACIs/RE
  - ✓ Curriculum-aniztasuneko programak.
  - ✓ PRL
  - ✓ PREE
  - ✓ Kultura arteko dinamizatzaileak.
  - ✓ Eskolatzeko programa osagarriak.
  - ✓ Elkarbizitza-planak.
  - ✓ Curriculum-garapenaren programak.
- …

3ª. ERANTZUN DESBERDINEN BERRIKUSPENA (AGIRIEN OINARRIA).

- Ikasleei eskainitako hezkuntza-erantzunetan hobetzeko proposamenak egotea:
  - ✓ Klaustroen aktak.
  - ✓ Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen aktak.
  - ✓ Orientabide departamentuaren aktak.
  - ✓ Mailen eta zikloen aktak.
  - ✓ Departamentuen aktak.

4ª. KOORDINAZIOA/BESTE INSTITUZIO BATZUETAN SAREAN EGITEN DEN LANA/ELKARTEAK/ERAKUNDEAK (BILEREN ERREGISTROA).

- Sareko lana sustatzea:
  - ✓ Hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzak.
  - ✓ Udalak (gizarte-langileak, bitartekariak…).
  - ✓ Foru Aldundia
  - ✓ Buru-osasuna/eskola-osasuna
  - ✓ Arreta goiztiarra emateko zerbitzuak.
  - ✓ Elbarritasun desberdinei edo Hezkuntza Laguntzako beste premia espezifiko batzuei (Dislebi, TDA-H…) lotutako elkarteak.
  - ✓ …

5ª. IKASTEKO JARDUERAK (JARDUEREN ERREGISTROA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu.
  - ✓ Ikastetxeak edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du.
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…

**12. irizpidea** **Irakasleek ikasleen tutoretza eta orientabidea gauzatu ditzaten bitartekoak edukitzea.**

**Adierazleak**

- Banaka nahiz taldeka tutoretza-funtzioa betetzen dela ziurtatzea.
- Ikasleak akademikoki, profesionalki nahiz pertsonalki orientatzeko bitartekoak jartzea.
- Tutoreak eta beste eragile batzuk familiekin komunikatzen direla ziurtatzea.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Tutore eta aholkulari/orientatzaile bakoitzaren esku daude tutoretza, orientazioa eta familiekiko komunikazioa. Tutorearen esku-hartzea eta ikasleen orientazioa sistematizatuko dituen ildorik ez dago ikastetxean.<br><br>Taldekako tutoretza egiteko programa sistematikorik ez dago, eta saioren bat egiten denean, gertatu berri den gatazkaren baten aurreko erreakzioa izan ohi da.<br><br>Ikasleekin izandako banakako esku-hartzeak ere ebaluaketa negatiboen edo bizikidetza arazoren baten ondorio izan ohi dira orokorrean.<br><br>Familiekiko komunikazioa gehienetan haiek eskatzen dutelako izaten da. | Ikastetxean tutoretza plana egitea eta aplikatzea bultzatzen du zuzendaritzak, baina oraindik ez dago ikastetxe osora zabalduta.<br><br>Taldekako tutoretza-saioak egiteko oinarriak jarrita daude eta banakakoaren esku-hartzerako eta familiekiko komunikaziorako irizpideak zehazten ari dira.<br><br>Ikasleek ebaluaketa objektiborako duten eskubidea ziurtatzeko, zehaztuta daude ikasturtea, zikloa edo aldia gainditzen den ala ez erabakitzeko irizpideak.<br><br>Familiekin esku-hartze proaktiboak hasita daude. | Ikastetxe osorako tutoretza plana ziurtatzen du zuzendaritzak. Bertan taldekako-tutoretza saioak programatuta daude, eta banakako esku-hartzetarako eta familiekiko komunikaziorako irizpideak eta denborak zehaztuta daude.<br><br>Tutoreei, irakasle espezialistei eta aholkulariei/orientatzaileei esleitutako funtzioak sistematikoki betetzen direla ziurtatzen du; horretarako beharrezko baliabideak dituzte: ordutegia, lekua, material eta prestakuntza. Horren guztiaren emaitza da, hezkuntza-aldi bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak izango duen txostena; orientazio pertsonala, akademikoa eta, beharrezko denean, profesionala biltzen dituena. Orientazio hori arretaz zaintzen du “ez gainditzeko” edo ikasgaiak zintzilik dituela gainditzeko erabakia hartzen denean.<br><br>Familiekiko komunikazioa ziurtatzen du eta arreta berezia jartzen du irakasleen, ikasleen eta familien esku hartzeko planak batera egitean.<br><br>Inplikaturiko pertsonen iritzia jasotzeko mekanismoak abian jartzen ditu. | Tutoretza plana ikastetxeko maila guztietan aplikatzen dela ziurtatzen du zuzendaritzak, eta irakasle guztiei dagokien tutoretza-funtzioa sistematikoki betetzeaz arduratzen da.<br><br>Hartutako erabakiak berrikusi eta beharrezko hobekuntzak ezartzen ditu, bai planaren edukian (programazioak sekuentziatzea, irizpideak eta esku-hartzerako denborak zehaztea…), bai orientazio pertsonalerako, akademikorako eta profesionalerako txostenetan.<br><br>Esku-hartze proaktiboak sustatzen dira ikastetxean, gatazken edo eskarien zain egon ordez plan baten arabera sistematikoki jarduten da.<br><br>Arlo horretan erreferentzia diren organizazioekin jardunbide onak ikasten eta partekatzen ditu. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. TUTORETZA-JARDUERAREN PLANA (AGIRIETAN JASOTA DAGO)

- Tutoretza-jardueraren plana, eduki honekin, dagoen egiaztatzea:
  - ✓ Talde mailako tutoretza-saioen programazioa.
  - ✓ Banaka esku hartzeko irizpideak.
  - ✓ Familiekin komunikatzeko irizpideak.

2ª. TUTORETZAN JARDUTEKO ETA KOORDINAZIORAKO BITARTEKOAK EGOTEA (AGIRIETAN JASOTA DAUDE ETA IKUSTEN DIRA).

- Badaude tutoretzan jarduteko eta koordinazioa egiteko denborak:
  - ✓ Talde mailako tutoretzaren ordutegia.
  - ✓ Familiekin biltzeko edo elkarrizketak egiteko ordutegia.
  - ✓ Koordinatzeko ordutegia.
  - ✓ Aholkulariaren/orientatzailearen eta tutoreen artean koordinatzeko plana.
- Espazioak egotea.
  - ✓ Espazioak ematen du tutoretzan jarduteko eta tutoreekin koordinatzeko aukera.
  - ✓ Behar diren baliabideak ditu (bibliografia, ordenagailua, Internetera sartu ahal izatea…).

3ª. ESKOLA-ORIENTABIDEARI BURUZKO TXOSTENA (AGIRIETAN JASOTA DAGO).

- Txosten hori badago Lehen Hezkuntzaren eta DBHren bukaeran.
- Txostenaren edukia:
  - ✓ Ikaskuntzak lortu diren maila.
  - ✓ Puntu indartsuak eta hobetu beharreko alderdiak jasotzen dira.
  - ✓ Agian hartu behar diren erabakiei buruzko argudioak ematen dira (hurrengo kurtsora pasatzea, arreta emateko neurri bereziak…).
  - ✓ Hezkuntza-ibilbide egokiena formulatzea.
- Ikasle eta familien artean hedatzea:
  - ✓ Martxan jarri diren prozedurak: elkarrizketa, txostenak entregatzea…

4ª. TUTORETZAN JARDUTEKO PLANAREN BERRIKUSPENA (AGIRIEN OINARRIA).

- Tutoretzan jarduteko planaren berrikuspena eta hobekuntza:
  - ✓ Klaustroaren aktak.
  - ✓ Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen aktak.
  - ✓ Orientabide departamentuaren/beste departamentu edo ziklo batzuen aktak…

5ª. IKASKUNTZA-JARDUERAK (JARDUEREN ERREGISTROA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu.
  - ✓ Ikastetxeak edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du.
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu…


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

**13. irizpidea** Ikasleen hezkuntzari buruz familiei informazioa segurtatzea eta hezkuntza horretan haien inplikazioa sustatzea.
(*) Banaketa- eta dibortzio-kasuetan ikastetxeko zuzendaritzak bi gurasoei ziurtatuko die informazioa, dagokion epaiak kontrakoa ez badio behintzat.

**Adierazleak**

- Ikasleen hezkuntza-garapenaren alderdiei buruzko informaziorik garrantzitsuena beraien familiei iristen zaiela ziurtatzea.
- Ikasleen hezkuntza-prozesuan familien inplikazioa sustatzea ikastetxekoarekin batera.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Familiekiko komunikazioa tutore eta irakasle bakoitzaren esku dago. Irakasle bakoitzarekin elkarrizketa eskatzeko egunen eta orduen egutegia besterik ez zaie eskaintzen familiei ikastetxean.<br><br>Ebaluaketaren emaitzak ematen dira araudiak horrela agintzen duenean.<br><br>Irakasle bakoitzaren esku dago familien portaera-erantzunkideak sustatuko dituzten estrategiak bilatzea. | Familiekin komunikazio-bideak sustatzen ditu zuzendaritzak, horien artean: ikasturte hasieran gutunak bidaltzea, ez agertzeagatik eta berandu iristeagatik egindako faltak jakinarazteko protokoloak, eta jokabide desegokien, bizikidetzaren kontrakoen edo berdinen arteko tratu txarren aurrean hartu beharreko hezkuntza-neurriak jakinarazteko.<br><br>Noten txostenaz gain, ikastetxean prozedura bat ezarri da familiei ebaluaketa bakoitzaren emaitzak zuzenean jakinarazteko, horiek positiboak ez direnean. Ikasleen ez-agertzeak eta jokabide desegokiak edo bizikidetzaren aurkakoak berehala jakinaraztea, prozedura horretan sartzen da.<br><br>Tutoreei lagunduz eskuhartzen du zuzendaritzak familien inplikazioa beharrezkoa den egoeratan (ez-agertzeak, bizikidetza arazoak, errendimendu-eza…). | Zuzendaritzak konpromiso irmoa dauka, familiekin komunikazioa errazte aldera ikastetxeak ezarrita dituen ildoak betetzeko (ikasle berriak hartzeko prozesuan, ikasturte hasieran, ebaluaketa jarraian eta amaierakoan, agertzearen kontrolean eta egoera esanguratsuetan).<br><br>Gaitasunetakoren batean ebaluaketa ez positiboa antzematen denean, familiekin batera garatzeko jarduera-planak ezarri dira.<br><br>Ebaluaketaren emaitzak jakinarazteko prozedura zehaztu da, txosten informatiboa ematea ere biltzen duena. Ikasleen ez-agertze faltak eta jokabide desegokiak edo bizikidetzaren aurkakoak berehala jakinarazteaz gain, arrazoien azterketa ere egiten da.<br><br>Tutoreen eta familien artean adostutako esku-hartzeei (ez-agertzeak, bizikidetza arazoak, errendimendu-eza...) jarraipena egiteko mekanismoak abian jartzen ditu. | Familiekiko edo ordezkari legalekiko komunikazioa ziurtatzen du zuzendaritzak; seme-alaben hezkuntza-prozesu osoko gaitasunen garapenari buruzko informazio garrantzitsuena ematen du.<br><br>Familien erantzunkidetasuna sustatzen du, eta zenbait mekanismo erabiliz inplikatzen ditu (ikasketa-kontratuak, ikasgelako akordioak, guraso-eskolak...).<br><br>Familien komunikazioa eta inplikazioa ziurtatzeko prozedurak berrikusten ditu eta beharrezko hobekuntzak ezartzen ditu.<br><br>Jardunbide onak ikasten eta partekatzen ditu familien inplikazioan puntakoak diren organizazioekin. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. FAMILIEI JAKINARAZTEA (AGIRIETAN JASOTA DAGO).

- Haien seme-alaben bilakaera familiei jakinarazteko erabilitako prozedurak:
  - ✓ Elkarrizketak (elkarrizketen egutegia).
  - ✓ Zirkularrak (ikasturtearen hasierakoak, geroago etorri diren egoerei buruzkoak…).
  - ✓ Sartzeko baimena duen web orria.

- Komunikazioaren edukia:
  - ✓ Absentismoa.
  - ✓ Puntualtasunaren arazoak.
  - ✓ Elkarbizitza-arazoak.
  - ✓ Ebaluazioaren emaitzak:

    - Buletina (entregatzeko era)
    - Elkarrizketak (erregistroa):
      - Buletina entregatuz (guztiei).
      - Gainditu gabeko arloak dituztenei bakarrik (etengabeko ebaluazioan, azken ebaluazioan).
      - Ikasleari entzuteko tramitea betetzeko, hurrengo kurtsora pasako den edo ez erabakitzeko orduan (Lehen Hezkuntza).

2ª. ERANTZUNKIDETASUNA.

- Klasean hartutako konpromisoen jarraipena (erakutsi behar duten materiala, lanak entregatzea, abisuak agendan…):
- Ikaskuntza-kontratuak (agirietan daude jasota).
- Gurasoentzako eskola (prestakuntza-saioak erregistratzea).
- …

3ª. FAMILIEKIN KOMUNIKATZEKO EZARRITAKO MEKANISMOAK BERRIKUSI ETA HOBETZEA (AGIRIETAN DAUDE JASOTA).

- Ezarritako mekanismoetan hobekuntzak egotea.
- Klaustroaren aktak.

  - ✓ Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen aktak.
  - ✓ Orientabide departamentuaren/beste departamentu batzuen/mailen, zikloen…aktak.
  - ✓ Urteko memoria.

4ª. IKASKUNTZA (JARDUEREN ERREGISTROA).

- Praktika onak partekatu eta ikasten ditu:
  - ✓ Ikastetxeak edo erakundeak bisitatzen ditu.
  - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
  - ✓ Ikertzen du, gai honetan gaurko esperientziei buruzko informazioa jasotzen du: berrikuspen bibliografikoa, Interneta…
  - ✓ Artikuluak idazten ditu, txostenak egiten ditu.


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

# 3. DIMENTSIOAREN BALORAZIOA

| **3. DIMENTSIOA**<br>LIDERGO PEDAGOGIKOA. | | | |
|---|---|---|---|
| **10. IRIZPIDEA**<br>**Irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetzeko behar diren curriculum-neurriak sustatzea.** | **11. IRIZPIDEA**<br>**Aniztasunari arreta emateko neurriak sustatzea.** | **12. IRIZPIDEA**<br>**Irakasleek ikasleen tutoretza eta orientabidea gauzatu ditzaten bitartekoak edukitzea.** | **13. IRIZPIDEA**<br>Ikasleen hezkuntzari buruz familiei informazioa segurtatzea eta hezkuntza horretan haien inplikazioa sustatzea. |
| | | | |
| **DIMENTSIOAREN BALORAZIO GLOBALA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR
ER
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001
ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## **4. DIMENTSIOA:** BARNE ETA KANPOKO ERAGILEEK PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA

**14. irizpidea** **Ikasleen, familien eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren inplikazioari eta konpromisoari laguntzea ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan.**

**Adierazleak**

- Ikasleak ikasgelaren eta ikastetxearen antolakuntzan eta funtzionamenduan parte hartu dezaten eta inplikatu daitezen sustatzea, bizikidetza positiborako neurriei bide emanez.
- Familiak eta irakasle ez diren langileak ikastetxearen antolakuntza-egituran parte hartu dezaten eta inplika daitezen sustatzea.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Familien, ikasleen eta irakasle ez diren langileen parte-hartzea araudiak ezarritako egituretan gauzatzen da. Formalitate hutsa dira.<br><br>Jarduera aurreratuagorik baldin bada, pertsona zehatz baten ekimena baino ez da (irakaslea, irakasle-taldea, gurasoak, irakasle ez den langileren bat). Horri egiteko baimena ematen zaio, baina ikastetxearen erabaki bati erantzun gabe.<br><br>Ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen iritzia jasotzeko mekanismo formalik ez dago. | Ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen parte-hartzea sustatzen du zuzendaritzak araudiak ezarritako egituretan (dagokien batzordeen edo organoen deialdia egin aurreko informazioa eskainiz, nahitaezkoak diren baino bilera gehiagotarako deia eginez…).<br><br>Sektore horietakoren baten (ikasleak, familiak, irakasle ez diren langileak) inplikazioa eta parte hartzea indartzen dituzten beste mekanismo batzuk jarri ditu abian, baina oraindik hasieran daude edo ez dute ikastetxe osoa hartzen.<br><br>Ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen iritzia jasotzen da, araudiak ezarritako organoetan eta ikastetxeak sortutakoetan parte hartuz. | Ikasleak ikasgelaren eta ikastetxearen antolakuntza-, funtzionamendu- eta bizikidetza-arloetan (gelako ordezkaria, ordezkarien batzarra, ikasle-elkartea…) parte hartzeko eta inplikatzeko mekanismoak ezarri ditu zuzendaritzak.<br><br>Familiek parte hartu dezaten mekanismoak ezarri ditu, araudiak eskatutakoz gaindi doazenak (gelako ordezkariak, batzorde mistoak, guraso-eskolak…).<br><br>Ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen iritzia jasotzeko prozedura ezarri da; orokorrean urteko memoriari gehitzen zaio, hurrengo urteko ikastetxearen planean kontuan izateko horrela.<br><br>Ikasleen jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak erabiltzea kudeatzen du hezkuntza-komunitateko sektore guztiekin. | Irakasle ez diren langileen parte-hartzea bultzatzen du berariazko mekanismoen bidez (batzorde mistoak, bizikidetzarako batzordea…).<br><br>Ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen iritzia sistematikoki jaso eta beharrezko hobekuntzak ezartzen dira (ikasgelen funtzionamenduan, metodologian, ebaluaketan, giroan eta bizikidetzan, eskolaz kanpoko jardueratan…).<br><br>Ikastetxeak “hezkuntza-komunitate” bezala funtzionatzen du (sektore guztiek adostutako arauak, guzti horien erantzunkidetasuna, hezkuntza-neurriak lehenestea…).<br><br>Jardunbide onetatik eta ikerketetatik ikasten du eta bere esperientzia partekatzen du. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

**1ª. IKASLEEN PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA** (OOGko ORDEZKARIEKIN/GELAKO DELEGATUEKIN, ZIKLO/KURTSO BAKOITZEKO BI IKASLEREKIN… ELKARRIZKETA)

- Parte-hartzeko egiturak:
  - ✓ OOGko ordezkariak.
  - ✓ Beste egitura batzuen bidez (elkarbizitza-behatokia, gelako delegatuak, delegatuen batzarra, ikasleen elkartea…).
- Parte-hartzearen planifikazioa:
  - ✓ Egutegia.
  - ✓ Lantzen dituzten gaiak (aldez aurreko informazioa, bilerak prestatzea…).
  - ✓ Proposamenen deribazioa.
  - ✓ Konpromisoen jarraipena.

**2ª. FAMILIEN PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA** (OOGko ORDEZKARIEKIN/KLASEKO DELEGATUEKIN/GErekin ELKARRIZKETA).

- Parte hartzeko egiturak:
  - ✓ OOGko ordezkariak.
  - ✓ Beste egitura batzuen bidez (elkarbizitza-behatokia, batzorde mistoak…).
- Parte-hartzearen planifikazioa:
  - ✓ Egutegia
  - ✓ Lantzen dituzten gaiak (aldez aurreko informazioa, bilerak prestatzea…).
  - ✓ Proposamenen deribazioa.
  - ✓ Konpromisoen jarraipena.

**3ª. PERTSONAL EZ IRAKASLEAREN PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA** (OOGko ORDEZKARIEKIN/JANTOKIKO PERTSONALAREKIN…ELKARRIZKETA).

- Parte hartzeko egiturak:
  - ✓ OOGko ordezkariak.
  - ✓ Beste egitura batzuen bidez (elkarbizitza-behatokia, batzorde mistoak…).
- Parte-hartzearen planifikazioa:
  - ✓ Egutegia.
  - ✓ Lantzen dituzten gaiak (aldez aurreko informazioa, bilerak prestatzea…).
  - ✓ Proposamenen deribazioa.
  - ✓ Konpromisoen jarraipena.

**4ª. FAMILIEN, IRAKASLEEN ETA IKASLEEN IRITZIA JASOTZEA** (ELKARRIZKETA).

  - ✓ (1. irizpidearen 3. ataleko *"fuentes de evidencia "tara* jotzen da)

**5ª. IKASKUNTZA** (ELKARRIZKETA, AGIRIEN BERRIKUSPENA…).

- Bisitak/esperientziak.
- Ikerketak/bibliografia.
- "Investors in people" eredua
- Haren esperientzia partekatzen du: hitzaldiak ematen ditu, artikuluak argitaratzen ditu…

**15. irizpidea** **Inguruneko beste ikastetxe, instituzio, zerbitzu, enpresa eta pertsona batzuekiko lankidetza sustatzea.**

**Adierazleak**

- Beste ikastetxe batzuekin harremanak sendotzea esperientziak eta hezkuntza-jardunbide onak elkartrukatzea errazteko, eta ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatzea hezkuntza-arloko eskuhartzeak.
- Inguruko instituzioetako eta erakundeetako informazio garrantzitsua ematen duten prozedurak sortzea eta proiektuak hobetzeko sistematikoki erabiltzea.
- Ikastetxeaz kanpoko beste erakunde batzuen parte-hartzea sustatuko duten mekanismoak abian jartzea ikasleekiko esku-hartzea hobetzeko.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ez da beste ikastetxe, erakunde edo pertsona batzuekin harremanik sortzen, ikasleak lekuz aldatzean ikasketen historia bidaltzea, enpresetako praktikak kudeatzea eta eskakizunei erantzutea bezalako formalitateak ez badira.<br><br>Ez da prozedurarik ezarri beste instituzio, erakunde edo pertsona batzuengandik datorren informazioa jasotzeko, eta jasotzen denean, bereziki sentsibilizatutako irakasleen ekimena izaten da.<br><br>Ikaslea artatzeko ezartzen diren harremanen kasu zehatzean, beste erakundearen eskakizunaren ondorio izaten dira edo ikastetxeko langile jakinen ekimenaren ondorio. | Beste ikastetxe batzuekin harremana sustatzen du zuzendaritzak, ibilbide berekoekin batez ere. Hurrengo hezkuntza-etapa ematen duen ikastetxera doazen ikasleei buruzko informazioa elkartrukatzen du, dagokionean.<br><br>Zenbait gaitan ikasleei ematen zaien erantzuna hobetzeko (ez-agertzea, babesgabetasuna, proposamen metodologikoak, buru-osasuna, praktikak enpresetan…), irakasleen eta beste instituzioetako, erakundeetako edo enpresetako langileen arteko bilerak bideratzen ditu.<br><br>Ikastetxeko instalazioak erabiltzeko baimena ematen du araudiak ezarritakoaren arabera. | Ikastetxea beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuei irekitzea bultzatzen du zuzendaritzak, jardunbide onak elkartrukatzeko eta ikasteko aukera emanez.<br><br>Ikastetxea bere osotasunean beste instituzio, erakunde edo enpresa batzuekin koordinatzea bermatzen duten mekanismoak ezarri ditu ikastetxearen antolakuntza-egituran (besteak beste, pertsonak izendatu ditu, eta bileren maiztasuna, informazioa jasotzeko prozedura eta tratatu beharreko gaiak zehaztu ditu).<br><br>Ikastetxeko instalazioen erabilera errazten du, batez ere, hezkuntza-komunitateko eta tokiko administrazioko eragileentzat. | Ikastetxearen irudia zabaltzen du hezkuntza-ingurunean eta hortik kanpo, biltzarretara edo jardunaldietara entzutera edo txostenak aurkeztera joanez.<br><br>Sarean lan egitera bultzatzen ditu ikastetxeko irakasleak (hezkuntza-sareak, udal-zerbitzuak, foru aldundia, buru-osasuna, eskola-osasuna, adin txikikoen justizia…)<br><br>Beste ikastetxe (ibilbide berekoak batez ere), erakunde, zerbitzu, enpresa eta pertsona batzuekin hezkuntza-arloan aplika daitezkeen esperientziak elkartrukatzeko, plan zehatzak egitea bermatzen duten mekanismoak ezartzen ditu.<br><br>Ikastetxeko instalazioak erabiltzea bultzatzen du, komunitatearen garapenean eta inguruko kulturaren aberastasunean laguntzeko. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. IKASTETXEAREN IRUDIA HEDATZEN DU (AGIRIETAN DAGO JASOTA).

- Joan den kongresuak, jardunaldiak, trukeak…etab.
- Aurkeztutako txosten eta komunikazioak.
- Ikastetxeko aldizkaria.
- Artikuluak, beste argitalpen batzuk.

2ª. IKASTETXEAREN INSTALAZIOAK ERABILTZEA (ERREGISTROA).

- Ikastetxea ireki eta ixteko ordutegia (egiten diren jarduerak).
- Ikastetxearen instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duten erakundeak, instituzioak, pertsonak…etab.
- Instalazioak erabili ahal izateko (GE, Udala, kultur eta kirol erakundeak…) zuzendaritzak egin dituen jarduerak.

3ª. IKASTETXEAK BERE TESTUINGURUAREN GARAPEN SOZIAL ETA KULTURALEAN DUEN INPLIKAZIOA (ELKARRIZKETA).

- Inguruneak, auzoak…etab.ek ikastetxearen ekimenetan duen parte-hartzea.
- Komunitateko kideak (auzo elkarteak, merkatarien elkarteak, toki erakunde eta instituzioak…)inplikatzen dituzten eta eskolatik lideratzen diren prestakuntza-jarduerak.

4ª. IKASLEEN EDOTA IRAKASLEEN ARTEKO TRUKE-ESPERIENTZIAK (PROIEKTUAK).

- Arion, Comenius, Erasmus proiektuetan parte hartzea.
- Eskola Bidaiarietan parte hartzea.
- Ikastetxeen babesletza, beste ikastetxe batzuekin esperientziak trukatzea.
- Beste proiektu batzuk.

5ª. SAREKO LAN-ESPERIENTZIAK (LAN-PLANAK).

- Udalekin (oinarrizko gizarte-langileak, beste udal talde batzuk…), Foru Aldundiko haurrentzako zerbitzu espezializatuarekin, adin txikikoen jarraipena egiteaz arduratzen diren Justiziako ordezkariekin, Eskola Osasunarekin, etorkinen elkarte desberdinekin…lan egitea.
- Inguruneko enpresekin lankidetzan jardutea.
- Ikastetxearen gizarte-testuinguru hurbilarekin (elkarteak, dendak, profesional desberdinak, instituzioak…) programak garatzea.


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008

**16. irizpidea** Administrazioaren ordezkari izatea hezkuntza-komunitatearen aurrean; eta hezkuntza-komunitatearen ordezkari Administrazioaren aurrean.

**Adierazleak**

- Ikastetxearen ordezkari izatea kanpoan, bai hezkuntza-administrazioaren aurrean, bai beste ikastetxeen, erakundeen, instituzioen eta enpresen aurrean.
- Ikastetxean Administrazioaren ordezkari izatea, ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen ikuspuntuak, nahiak eta beharrak eta ikastetxean izandako gertakari garrantzitsuenak iritsaraziz horri.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Araudiaren arabera kanpoko instantzia ofizialetan hezkuntza-administrazioa ordezkatzen duen arren, bere hezkuntza-komunitatearen aurrean soilik egiten du, eta berak eskatuta. Ez ditu beti jakinarazten, besteak beste hezkuntza-administraziotik sustatzen diren araudia edo proiektuak eta programak.<br><br>Hezkuntza-administrazioak berak eskatzen dizkiolako soilik bidaltzen dizkio ikastetxearen beharrak eta proiektuak. | Administrazioa ordezkatzen du kanpoko instantzia ofizialen aurrean, eta formalki bere hezkuntza-komunitatearen aurrean (hezkuntza-administraziotik sustatzen diren araudia edo proiektuak eta programak jakinarazten ditu).<br><br>Bere komunitatearen beharren eta proiektuen berri ematen die hezkuntza-administrazioko organoei. | Administrazioa ordezkatzen du kanpoko instantzien eta bere hezkuntza-komunitatearen aurrean; hezkuntza-administrazioak kudeatzen dituen programak sustatzen ditu eta ikastetxearen beharrei erantzuten die.<br><br>Bere hezkuntza-komunitatearen beharren eta proiektuen alde egiten du hezkuntza-administrazioko organoen aurrean. | Administrazioa ordezkatzen du kanpoko instantzien eta bere hezkuntza-komunitatearen aurrean; hezkuntza-administrazioak eta beste administrazio publiko batzuk kudeatzen dituzten programak sustatzen ditu.<br><br>Bere hezkuntza-komunitatearen beharren eta proiektuen alde egiten du hezkuntza-administrazioko eta beste administrazio publiko batzuetako organoen aurrean. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |

…

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN ETA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEN PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK SUSTATZEN DITU IKASTETXEAN (AGIRIEN BERRIKUSPENA, ELKARRIZKETAK).

- Ondorengoek proposatutako proiektu desberdinetan parte hartzeari eta garatzeari lehentasuna emateko irizpideak egotea:

- HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOA.
  - ✓ Hezkuntza hirueledunaren esparrua.
  - ✓ Proiektu europarrak eta nazioartekoak (etengabeko ikaskuntza-programa: Sokrates ohiak, Erasmus eta Leonardo da Vinci; e Twinning, elkarrizketa-laguntzaileak…).
  - ✓ Aniztasunari arreta (kultur artekotasuna sustatzea, PROA, hezkuntza-errefortzu espezifikoa…).
  - ✓ Atzerriko hizkuntza (DBHko 4.a).
  - ✓ …
- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUK
  - ✓ Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: Bizkaiko lurraldean eskolatze-gabezia eta eskola-absentismoa errotik kentzea.
  - ✓ Udalaren programak.
  - ✓ Foru Aldundiaren programak.
  - ✓ Emakunderen programak.
  - ✓ …

2ª. HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN ETA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEN AURREAN DEFENDITZEN DITU HAREN IKASTETXEAREN PREMIAK ETA PROIEKTUAK (ELKARRIZKETEN ERREGISTROA EDOTA IDAZKIAK BIDALTZEA).

- HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOA
  - ✓ Hezkuntza lurralde ordezkariarekin elkarrizketak izatea.
  - ✓ Lurralde unitate desberdinetako (ikastetxeen, pertsonalaren, baliabideen, Ikuskaritzaren…burutza) arduradunekin elkarrizketak.
  - ✓ Bidalitako idazkiak.

- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUK
  - ✓ Udala (arrazoia, jo zuen arduradunak eta erabili zen bitartekoa jasotzea).
  - ✓ Foru Aldundia (arrazoia, jo zuen arduradunak eta erabili zen bitartekoa jasotzea).
  - ✓ Adin Txikikoen Fiskaltza/epaileak (arrazoia, jo zuen arduradunak eta erabili zen bitartekoa jasotzea).
  - ✓ Osakidetza (buru-osasuna, pediatria…)


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## 4. DIMENTSIOAREN BALORAZIOA

| | | |
|---|---|---|
| **4. DIMENTSIOA**<br>BARNE ETA KANPOKO ERAGILEEK PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA | | |
| **14. IRIZPIDEA**<br>**Ikasleen, familien eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonalaren inplikazioari eta konpromisoari laguntzea ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan.** | **15. IRIZPIDEA**<br>**Inguruneko beste ikastetxe, instituzio, zerbitzu, enpresa eta pertsona batzuekiko lankidetza sustatzea** | **16. IRIZPIDEA**<br>Administrazioaren ordezkari izatea hezkuntza-komunitatearen aurrean; eta hezkuntza-komunitatearen ordezkari Administrazioaren aurrean. |
| | | |
| **DIMENTSIOAREN BALORAZIO GLOBALA** | | |
| | | |
| **OHARRAK** | | |
| | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

## 5. DIMENTSIOA: EBALUAZIOA SUSTATZEA ETA ALDAKETA KUDEATZEA

**17. irizpidea** Ikastetxearen programei, antolaketari eta funtzionamenduari buruzko barne-ebaluazioak sustatzea eta kanpo-ebaluazioekin lankidetzan jardutea.

**Adierazleak**

- Barne-ebaluazioa sustatzea eta kanpo-ebaluazioak egiten laguntzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko datuak eta frogak izateko; baita ikastetxearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoak ere.
- Ikastetxearen kudeaketa hobetuko duten proiektu globaletan (SGC, EFQM eta beste batzuk) sartzea ikastetxea bera.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Ez dago ikastetxearen ikuspunturik, zuzendaritzak bultzatutakorik, barne-ebaluazioen mekanismoak erabiltzeari buruz. Esperientziaren bat baldin badago, bere irakaskuntza-jarduera aztertu nahi duen irakasleren baten edo zikloko talderen baten banakako praktikak dira.<br><br>Eskola-emaitzak eskolaren planifikazioarekin lotura duten datu estatistikoak dira (taldeen kopurua…).<br><br>Indarrean den araudiaren eskakizunak betez laguntzen du, diagnostiko-ebaluazioaren zentsu-probetan, edo PISA eta TIMMSen antzeko laginetan hautatua izaten denean. | Zuzendaritzak barne-ebaluaziorako mekanismoak bultzatzen ditu (irakaskuntzaren ebaluaziorako adierazleak gehituz urteko memorian, hezkuntza-komunitateko eragileen iritzia jasoz, ikasgelen funtzionamenduari buruzko behaketa-eskalak eginez…).<br><br>Ikasleen emaitzak daturik garrantzitsuenak dira erabakiak hartzeko, besteak beste, baliabideak izendatzerakoan eta proposamen metodologikoetan eta antolakuntzakoetan.<br><br>Kanpo-ebaluazioak egiten laguntzen du, beharrezko bitartekoak jarriz horretarako.<br><br>Ebaluazioek emandako datuak ezagutzen dira, eta hobekuntzarako aztertzen, lehenesten eta kontuan hartzen dira. | Hobekuntzarako mekanismorik ahaltsuenetakoa bezala identifikatu du zuzendaritzak ebaluazioa, eta beraz, ikastetxearen alderdiren baten eta programen barne-ebaluazioak jarri ditu abian.<br><br>Eskola-emaitzak sistematikoki aztertzen ditu, ondoren arrazoiak aurkitu eta hobekuntzak proposatzeko.<br><br>Proiektu integralak edo globalak gehitzen dizkio ikastetxeari (SGC, EFQM, beste proiektu batzuk).<br><br>Kanpo-ebaluazioetan laguntzen du eta eskatu ere egiten ditu, barne-ebaluazioan lortu dituen datuekin alderatzeko balioko dioten datuak lortzeko. | Besteak beste, ikastetxearen, programen eta pertsonen barne-ebaluazioak sustatzen ditu zuzendaritzak; konpromiso argi eta garbia dauka etengabeko hobekuntzarekin.<br><br>Ikastetxearen egiaztapena eta onarpena sustatzen ditu (SGC, ISO, EFQM, beste proiektu batzuk…).<br><br>Zenbait ebaluazio egin direnez, ikastetxeko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen funtzionamenduari buruzko datuak ditu, baita antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoak ere.<br><br>Barne- eta kanpo-ebaluazioen ikerketatik eta jardunbide onetatik ikasten du eta bere esperientzia partekatzen du. |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |


ER-0977/2008

EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. BARNE EBALUAZIOAK (AGIRIETAN JASOTA AGERTZEN DA).
- Barne ebaluaziorako prozedurak egotea:

- 1.1. Irakaskuntza-praktika ebaluatzeko adierazleak
    - ✓ Klaustroaren/zikloaren/departamentuaren…akta.
    - ✓ ICP.
- 1.2. Iritzia (irakasleena, familiena, ikasleena…) jasotzeko inkestak.
    - ✓ Klaustroaren/OOGren/zikloaren/departamentuaren…akta.
- 1.3. Gela behatzeko eskalak.
    - ✓ Klaustroaren/OOGren/zikloaren/departamentuaren…akta.
- 1.4. Barne ebaluazioaren diseinua
    - ✓ Ikastetxearena (globala edo alderdi konkretuena)
    - ✓ Programena.
    - ✓ Pertsonena.
- 1.5. Ikasleen emaitzen azterketa, ikastetxean hartzen diren erabakiei lotutakoa (batez ere metodologiarekin, ebaluatzeko irizpideekin, ikasleen taldekatzearekin eta erabilitako irizpideekin).

2ª. KANPO EBALUAZIOAK (ERREGISTROA)
- Kanpo ebaluazioetan parte hartu duten datak:
    - ✓ Diagnostiko-ebaluazioetan.
    - ✓ PISA
    - ✓ TIMMS
    - ✓ …
- Ebaluazio horiei buruzko txostenak.
- Datuetatik hartutako erabakiak (hobekuntza-proposamenak).

3ª. ESKU-HARTZE OSOAREN EDO GLOBALAREN EREDUAK (AGIRIETAN JASOTA AGERTZEN DIRA).
- EFQM (prozesuaren unea- sariak)
- SGC (prozesuaren unea- sariak)
- Ikaskuntza-erkidegoak/ Amara-Berri eskolak/Eskola txikiak…
- ISO (prozesuaren unea- ziurtatzea (ziurtatutako arloa)
- Sariak (Karmele Alzueta, Kalitateko Sari Nazionala, Marta Mata Sari Nazionala…)

4ª. IKASKUNTZA-JARDUERAK (DATEN, AGIRIEN ERREGISTROA…)
- Praktika onak bisitatzea.
- Ebaluazio-ereduen azterketa (balio erantsia).

**18. irizpidea** **Kanpo- eta barne-ebaluazioaren emaitzak curriculum- eta antolaketa-esparruetan hobekuntza-mekanismo gisa erabiltzea, ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna optimizatzeko.**

**Adierazleak**

- Ebaluazioetako emaitzen erabilera sustatzea eta sistematizatzea irakasleen irakaskuntza-prozesuak, ikasleen ikaskuntza-prozesuak eta ikastetxearen antolakuntza-prozesuak hobetzeko eta berrorientatzeko.

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 4. MAILA |
|---|---|---|---|
| Barne-ebaluazioaren ondorioz curriculumaren eta antolakuntzaren esparruan gehitutako hobekuntzak banakako irakasleen, edo talderen baten, esku daude; ikastetxeko zuzendaritzak ez du abiarazteko inolako ekimenik.<br><br>Kanpo-ebaluazioari lotutako hobekuntzak dira hobekuntzarako esku-hartzeen planean agertzen direnak, diagnostikorako ebaluazioaren kasuan, baina ez dira ikastetxearen urteko planifikazioan sartzen.<br><br>Diagnostikoaren ebaluazioaz gain ez dago kanpo-ebaluazioko beste daturik. | Zuzendaritzak irakasleen ekimenak sustatzen ditu, ikasleen hezkuntza-arloko erantzuna hobetzen duten aldaketak edo berrikuntzak ekartzen dituztenak; hala ere, hasiera batetik motibatutako irakasleetara edo ikastetxeko egitura txikietara mugatzen dira ekimen horiek.<br><br>Ikastetxeko eragileek eta antolakuntza-egiturek ebaluazioei buruz egindako balorazioak biltzeko tresna bezala erabiltzen du urteko memoria.<br><br>Kanpo-ebaluazioren bat dagoenean, horrek emandako datuak gehitu egiten dira, hobekuntzak sartzeko beste iturri esanguratsu bat bezala. | Curriculumaren eta antolakuntzaren esparruko erabakiak ikastetxe osora zuzentzea eta barne- eta kanpo-ebaluazioek emandako datuetan oinarritzea bermatzen du zuzendaritzak. Aztertzeko eta lehenesteko prozedura ezarri du horretarako.<br><br>Urteko memoria eta IUP tresna bezala erabiltzen ditu, ebaluazioetan jasotako datuen eta sartzen diren aldaketen arteko koherentzia bermatzeko.<br><br>Ziurtatu egiten du, hobekuntzak ezartzeko beste iturri esanguratsu bat bezala gehitzen direla kanpo-ebaluazioek emandako datuak.<br><br>Aldaketa guztien helburua ikasleen ikaskuntza hobetzea dela bermatzen du, eta beraz, ikastetxeko ikasle bakoitzaren eboluzio akademikoa eta pertsonala jarraitzeko prozedura ezarri du. | Zuzendaritzak kanpo- eta barne-ebaluazioen emaitzak erabiltzen ditu, curriculumaren esparruan (ebaluazio-irizpideen metodologiari eta definizioari arreta berezia jarriz) eta antolakuntzarenean (taldeen banaketa, tutoreak izendatzea, ordutegiak…) ikastetxe osorako beharrezko diren hobekuntzak ezartzeko.<br><br>Ikasle bakoitzaren historia akademikoaren jarraipena bermatzen du, ikastetxean hartu diren erabakiekin lotuz.<br><br>Ikasleen eskola-emaitzen azterketa egiten du, eta alderatu egiten ditu antzeko ikastetxeetakoekin eta emaitza onenak lortzen dituzten ikastetxeetakoekin (Hezkuntza Sailak emandako datuak erabiliz, Euskalit adierazle-sortaren datuak…). |
| **IRIZPIDE-MAILAREN BALORAZIOA** | | | |
| | | | |
| **OHARRAK** | | | |
| | | | |



AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

# EBIDENTZIA-ITURRIAK

1ª. BARNE EBALUAZIOAREN DATUAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Urteko memoria.
- Beste batzuk.

2ª. KANPO EBALUAZIOAREN DATUAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Urteko memoria.
- Hobekuntzarako esku hartzeko plana.
- Beste batzuk.

3ª. EBALUAZIOAREN DATUEKIN HARTZEN DIREN ERABAKIAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Ikastetxearen urteko plana.
- Programazioak.
- EED
- Beste batzuk.

4ª. PROMOZIO BAKOITZAREN DATUEN AZTERKETA HISTORIKOA (ELKARRIZKETA, AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- HAUR HEZKUNTZA: 2 urterekin, 3 urterekin eta geroago hasten direnen kopurua; urtebete gehiago egoten direnen eta Lehen Hezkuntzara pasatzen direnen kopurua.
- LEHEN HEZKUNTZA: Lehen Hezkuntzan hasten direnen eta etapan zehar sartzen direnen kopurua. Ziklo bakoitzean: hurrengo kurtsora pasatzen direnen eta kurtsoa gainditzen dutenen kopurua. DBHra pasatzen direnen kopurua.
- DBH: hasten direnen eta geroago sartzen direnen kopurua. Kurtso bakotzean: hurrengo kurtsora pasatzen direnen eta kurtsoa gainditzen dutenen kopurua. 4.a bukatzen dutenen kopurua. Titulua lortzen dutenen kopurua.
- BATXILERGOA: hasten direnen eta geroago sartzen direnen kopurua. Kurtso bakoitzean: hurrengo kurtsora pasatzen direnen eta kurtsoa gainditzen dutenen kopurua. 2.a bukatzen dutenen kopurua. Titulua eskuratzen dutenen, selektibitatera joaten direnen eta gainditzen dutenen kopurua.
- Mailak gainditu ez zituztenekin hartu ziren erabakien analisia.

5ª. EMAITZEN KONPARAZIOAK (AGIRIEN BERRIKUSPENA).

- Hezkuntza Ikuskaritzak eskainitako datuekin (erkidegoa eta sarea).
- Euskalit-en bateriarekin.
- Sektoreko onenekin.
- Beste batzuekin…

6ª. EMAITZAK AZTERTU ETA KONPARATU ONDOREN HARTZEN DIREN ERABAKIAK ETA IKASTETXEAREN ILDO ESTRATEGIKOAK DEFINITZEKO ORDUAN DITUZTEN ONDORIOAK (ELKARRIZKETA ETA AGIRIEN BERRIKUSPENA).


AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM

# 5. DIMENTSIOAREN BALORAZIOA

| **5. DIMENTSIOA**<br>EBALUAZIOA SUSTATZEA ETA ALDAKETA KUDEATZEA | |
|---|---|
| **17. IRIZPIDEA**<br>Ikastetxearen programei, antolaketari eta funtzionamenduari buruzko barne-ebaluazioak sustatzea eta kanpo-ebaluazioekin lankidetzan jardutea. | **18. IRIZPIDEA**<br>**Kanpo- eta barne-ebaluazioaren emaitzak curriculum- eta antolaketa-esparruetan hobekuntza-mekanismo gisa erabiltzea, ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna optimizatzeko.** |
| | |
| **DIMENTSIOAREN BALORAZIO GLOBALA** | |
| | |
| **OHARRAK** | |
| | |



AENOR ER Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 ER-0977/2008 CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM